


deserria
haurtzaro

MADDI
ZUBELDI
AROZENA

 BOOKTEGI



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

MADDI ZUBELDIA AROZENA

desherria haurtzaro

Unai, Nahia eta Ibairi,
lerroen artetik maitasuna jaso dezaten.

Aitzin-solasa

Honako liburu eder hau ez da ustekabeen sortu, ez da udaberriko goiz batean bat-batean sorturiko lili polit usain onekoa, ez, liburu honek baditu bere aitzindariak, badu bere bidea egina, badu bere istoriotxoak. Egilea Maddi Zubeldia ziburutarra dugu, gazte-gaztetik euskalgintzari lotua dena, Azkaingo ikastolan andereño, H-eden taldean kantu-egile eta abeslari, hor tarteka olerkari... Ongi ondutako sortzailea da. Eleberri hau, nolabait erraiteko, orain arteko bidearen gailurra da, ongi irabazitako gailurra.

Maddik bihotzez eta sentimendu sakon handiaz idazten du, ez du errealitate gordina xerkatzen, sentikortasunez ikusiriko errealitatea baino. Horrek, hala ere, ez dio bere liburuari deus kentzen, aberasten eta edertzen baizik. Eleberri honetan maisutasun handia erakutsi du, lumaren nondik norakoak ongi zuzentzen dakiela garbi azaldu digu. Bere idazkera zuzena eta halaber zorrotza dugu, hasieratik amaieraraino kontakizunaren ildoak ongi lotzen eta uztartzen dakiena.

Gaia arras berezia eta bi zatitan banatuta dago. Lehen zatian Ana neskatila horaila dugu protagonista nagusia eta bigarrenean Mila izeneko neska. Nahiz eta bi pertsonaia izan, Maddi Zubeldiak ongi lotzen jakin ditu bi neska hauen inguruan sorturiko pasadizo eta gertakizunak. Bi dira, baina, azken finean, liburua irakurtzean ikusiko dugun bezala, bat baino ez dira. Odolak uztartzen ditu bi-biak. Tramak edo gidoiak, beraz, ongi harilkatutako istorioa dakarkigu gogora.

Bi pertsonaia hauen inguruan Hego Euskal Herria odolez blaitu zuen 1936ko gerla madarikatuaren ondorengo hamarkada hits luzeetan biziraun behar izan zuten euskaldunen bizimodu gogorra eta sentipen urratuak azaltzen dizkigu maisukiro. Barne-barneraino umiliatu eta katakonbetara behartutako Herri baten eguneroko penak eta pozak agertzen dizkigu. Hor azaltzen den Arozena familia ez al da Maddirena? Landesetako Mezos herrira bizitzera joandako Ana neskatilak ez al digu nolabait Maddiren haurtzaroa islatzen? Bai, horixe! Liburu hau, neurri batez, autobiografikoa dela erran daiteke.

Bigarren zatian, Mila / Kandi binomioaren bitartez, garai hartako euskal gizartean jazotako gertaerak aurkezten dizkigu: Burgosko prozesua, Meliton Manzanask hil zutenekoa, haur lapurtuen auzia..., baina ez da horretan geratzen, eta kontakizuna gaurko gizartearen arazo edota problematika berrietara hurbiltzen du, inolako hausturarik sortu gabe. Horrela lesbianismoa du aipatzen, naturaltasun osoz, neholako taburik gabe.

Aitzin-solas hau idazten aritu izan naizen bitartean, H-Edenen Intimitartean disko berria entzuten aritu naiz. Kantu gehienak Maddik idatziak eta musikatuak dira. Ekar dezadan lerro hauetara Xuxurla kantuaren lehen kobla, hortxe biziki ongi islaturik ikusi baititut nik Maddi Zubeldiaren barne-sentimendua, etengabeko bilakaera eta estilo berezia.

Haitzondo nintzeneko oroimenean,
zainetan barna neraman bizia
oraindik ere,
xuxurlaka ari da zur naizenetik,
gogortu naizenetik, gogortu.

Laburbilduz, erran genezake liburu bikaina dela, hastapenetatik bukaeraraino istorioaren ildoak xuxurla batean, artez eta zuzen, eroaten duena. Alabaina, ez dut uste liburu hau Maddi Zubeldiak eskainiko digun azkena izanen denik. Liburu hau goi-goian ibili den arren, ziur naiz Maddiren luma ez dela hor baratuko, eta gailur garaiagoen xerka abiatuko delakoan nago. Geroak erranen.

Joseba Aurkenerena
Urruñan, 2016ko apirilaren 8an.

LEHEN PARTEA

Frantziara bizitzera

Zenbat kilometro ote Irundik Mezos-era? Ehun eta hogeita hamar bat, asko botata. Alabaina, sei urteko haur hari etengabea iruditu zitzaion. Ezin jakin xuxen nola joan ziren: autoz, kamioiez... ez zekien. Baina bidaiaren goitikin gustua betiko gelditu behar zitzaion eta Landetako pinudia zeharkatu bitartean, urdailetik ahoraino zintzurretik gora igo zitzaion txistu garratza ere bai, leku hartatik hurbiltzea urdailak onartuko ez balio bezala.

Mezos.

Herrixka tristerik bazen, huraxe...

Iritsi ziren bada etxe berria izan behar zuen hartara.

'Frantziara bizitzera!'

Aitak han lan egingo du eta. Eta poeta. Azalpenik izan zenik ezin segurtatu; neskak ez zuela tutik ulertu, hori segur. Irungo bizitzatik ez bat ez bi, Mezos-eko hilerrira.

Autotik edo jautsi, eta neba-arrebak sarrerara hurbildu ziren. Ataritxoa zegoen eta bertara berehala haur talde bat gerturatu zen. Zein ote zen haien arteko hizketa? Neskailak ikus zitzakeen haur haiek mintzaira arraro misteriotsu irrigarri hartan etorri berriei zerbait erran nahika, irudiz. Eta hauek, 'gui, gui, no, no' errepikatzen (horixe zen frantsesez zekiten guztia eta).

Luis, neba, Ana baino lau urte zaharrago ere bazen eta hura berehala egokitu zen egoerara. Hantxe abiatu zen mutiko parrasta harekin lasterka eta, batez ere, keinuka. Ana, haatik, aita-amekin etxe berria ikustera. Sei urterekin zuen hizkuntza maila normatik gorakoa ez izanik ere, berria nozioa aski finkatua zuen:

'berria: zaharraren aurkako zerbait', antza.

Zaila, ondorioz, etxe triste ilun heze harekin lotura egitea. Bigarren erran-nahia intuitu zuen, beraz: lehenagotik ezaguna ez dena. Hori.

Gendarmerie hitzaren hizkiak oraindik ere irakur zitezkeen aitzinaldean. Jendarmerian biziko zirela! Izan ere, egoitza gris eta zaharkitu hura bere garaian jendarmeena izan baitzen. Une hartan ez zion haurrak txisteari graziaz hartu. Etxe inguruan, baratze antzeko belardi tristea zegoen eta gibelaldean etxola zahar bat, noizbait tresnak edukiko zituena, agian. Larreak nagusitu zitzaizkion eremuari, inongo aitzur ukaldirik ezean. Zur beltzezko eskailera dardarti batzuk igo eta etxebizitzako atea. Ireki amak. Sartu Ana amaren atzetik. Puskak deskargatu aitak. Iluna. Ilunpea. Ezer guti ikus zitekeen, baina amaren begi urdinak lausotzen ikusi zituen, bai, neskailak; edo, bederen, barneko malko isilak sumatu, sukaldeko espazio hitsa bete zuen zotin mutua, zoko usainak gaina hartu zion arte.

'Ea ume, eon zaitxe ataixan, garbitxu biar det eta!'

Aita isilik, garraiatu eta garraiatu. Neskaxa ataixan jarri, traban ez, baina, baxter batean xintxo-xintxo, geldi-geldi, isil-isil. Huraxe zen Ana. Isil-isila, baina bere buruari amesgaitz hartatik noiz deabru iratzarriko ote zen galdezka. Lekuz kanpo zegoen. Hura ez zen bere mundua, ez bere herria, ezta bere etxea ere. Hura ezinezkoa zen.

Atzo Irungo Alfonso Morales kalean bizi zen neska horaila zen; nebari eta bieie pollitos de oro esaten zieten ilea urre kolorekoa baitzuten; eta begi urdin-urdinak; eta Anari amak bi motots alai egiten zizkion; eta gona txukuna janzten zion; eta bekainak txistuz orrazten zizkion kalera irten baino lehen, polit-polit joateko; eta Tia Angelesen La Vergaresa dendatik pasatzen ziren; eta Mariasunek donuts bat eskaintzen zien; eta igandeetan bonba bana ere erosten zien amak, kremaz betetako bonba gozoa, eta zoriontsu ziren; eta Gabonetan erregeak ikusten zituzten; eta San Martzialetan txuriz jantzi eta kantinerak txalotzen zituzten; eta udan Hondarribiko hondartzara joaten ziren autobusez.

Eta gaur Mezosen zeuden...

Orduantxe berean, arratsalde hartan, harrizko koskan jarririk zela ezagutu zuen sei urteko haurrak arrotasun sentipena, bizi guztirako berarekin eramango zuena. Berria huraxe ere.

Ondoko hilabeteak laino lodi batez inguratuak bailiran igaro zituen. Flash zenbait baizik ez: aita leher egina pinudian lan egitetik itzulita; Bleyne (nagusia) alua; ama leher egina zerratokian ari izan ondotik; ama haurdun, aita pozik.

Haurrak eskolan. Ikasten. Frantsesez egiten ikasi zuten amen batean. Murgiltzea bezalakorik ez da horretarako. Hobeki erranda, beharra bezalakorik ez. Murgiltzea baino, ez itotzea baitzen kasu hartan premiazkoa. Irakasleak ez zion Anari eskatutakoa ematen, ongi ahoskatu arte.

Adinik gabeko emakumea zen Madame Baris. Betaurreko handiek aurpegi serioa egiten zioten eta ile urdindua motto batez bildua zuen, mutxurdin itxura areagotuz. Ikasgelan etorkin bakarra zen Ana; irakasleak hegalpean hartu zuen berehala, zorrotasunez tratatzen zuen arren. Guraizeak behar zituen batean, 'zizo' eskatu eta ezetz besteak, 'ciseaux', ezpainak oilo-ipurdi gisan emanik bigarren silaban. Anak berriz 'sizo'. Ezetz. 'Sizo?' Eta horrela, ciseaux madarikatuak ahotik errun arte.

Baina ikasi, ikasi zuen behintzat. Ikasle onak ez zion poza baizik ematen irakasleari. Berehala harrapatu zuen bere ikaskideen maila, baita gaingitu ere. Eta irrigarriena edo, frantsesean ikasleetan azkarrena bilakatu zela hilabete guti barru. Gustatzen zitzaion entzutea (horretan esperientzia luzea baitzuen), ikastea; Poucet et son ami irakurtzea; eta luma mahai gaineko ziloan sartutako tinta-ontzian busti eta letrak idaztea, txukun, bi lerroren artean ongi kokatuz, gorakoan marra arina eginez eta behekoan lodiarazteko presioa behar bezala neurtuz, ondoren xukapaperaz lehortzea; eta emaitzari begira egotea, lan garbiak ematen duen gogobetetzeaz gozatuz.

Lagunak ere berehala egin zituen eta, kanpotik ikusita, zaila zen asmatzea barnean zeraman tristura. Horretan ere, asko ikasi zuen neskaxak, sentitzen zituenak disimulatzen, alegia; harengandik espero zena zer zen bete-betean harrapatzen zuen eta horretara egokitzen zuen jarrera.

Lagunak beraz bazituen. Ikasle onaren dirdira erakargarria zuen eta beste haurrak hurbiltzen zitzaizkion jolasera gonbidatzera: harrapaketan zein kuku-gordeka edota pilota jokoetan aritzeko, beti zegoen prest. Zango makoletan ibiltzen ere laster ikasi zuen; makuluak besapeetan kokatu eta urratsak luzatzearen trukoa aise harrapatu zuen, zailena, haatik, bertara igotzea eta abiatzea zitzaionlarik, horretarako neurri egokiko horma bilatu behar baitzen hantxe bermatu ahal izateko, zango luzeetara hupatzekotan. Behin hori lortuz gero, oso jostagarriak izaten ziren haurren arteko lasterketak. Aste batzuen ondoren, bertako landestartzat zeukaten Ana!

Garai hartan, osteguna izaten zuten jai ikasleek. Baina gurasoak laneko zirenez gero, haurrak beren kabuz ibiltzen ziren, eta erreka ingurua zuten topagune.

Herri hits hark zuen lekurik jasangarriena erreka zen. Ez zuen, ez, Bidasoaren dotorezia, baina egiazko zuhaitzek hegiak apaintzen zizkieten eta Ana askotan joaten zen bertara, zurzuri altuek osaturiko katedral naturalera, babes bila. Besarkatu ere egiten zituen, inork ikusten ez zuela segurtatu ondoren, noski, azal leunaren kontra belarria ezarriz, bere bihotz taupadak arbolaren hatsarekin nahastu arte.

Pinuekin aldiz ez zuen inoiz horrelakorik egiten, gorroto zituen pinuak. Agian bere egoeraren hobenduntzat zeuzkalako, baina ez horregatik bakarrik; pinuak, berez, ez baitzion mespretxua baino iradokitzen: ergela iruditzen zitzaion, erro gabea, edozein haizetek hankaz gora barregarri uzten duena, hostoen ordez orratz jaurtitzaille inozoa, itzala ere xuhur ematen duen soldadu lerrokatua; izerdi gabeko erretxina likatsu eta azal lakarreko gerlari hutsala, hau da, pinua, dena den, komuneko ziloan bukatzeko sortua.

Luis primeran moldatu zen. Taldeburu jarri zen iritsi ordu. Tratuan aritzen zen mukizu guztiekin. Kanika eman eta tiragoma jaso, tiragomaren truke pistolatxo... etxe hartan bera zen komertziorako sena zuen bakarra, gaitasun guztia haren baitan bildua izaki!

Behin batean, auskalo zer besta izan zen herrian. Bo, hango besten egitaraua lerro bakarrean zetzan: bi barraka zaharkitu eta lapinodromoa. Bai, jaun-andereak: lapinodromo izeneko joko zirraragarria: untxi gaixo bat pista zirkular baten erdian, eta zenbaki batez seinalatuak ziren ate-zilo batzuk inguruan. Bost libera zenbaki bat hautatzeko. Untxia hortik ateraz gero, zuretzat.

Luis begira-begira egon zen, eta etxera.

‘Ama, zestua eta bost franko eman, konejua irabaztera nixe ta.’

Ama irriz, semetxoaren atrebentziaren xarma pean. Eman zizkion eskatutakoak. Baita ekarri ere bueltan untxia etxera Luisek harro-harro.

‘Esan nizun ba!’

Handik egun batzuetara kazolakada ederra jan zen Jendarmerian. Lapinodromoaz gain, jaiak alaitzeko ekitaldi harrigarria bezain arrakastatsua zuten Mezosen: majoretteen desfilea. Fanfarreak lagundurik abiatu ziren herriko etxearen gibeletik, suspensea mantentzeagatik, antza.

Urteko gertakarietan igurikatuena izaten zen herriko haur eta helduentzat. Majorette haien janzkia ikustekoa zen benetan.

'Sekula halakoikan! Zer da hau halakua?'

atera zitzaion amari, harridurak jota. Izan ere, ez baitzuen lehenagotik inoiz halakorik ikusi. Anari ere bitxia iruditzen zitzaion haien itxura: gona motz-motz pleguduna zeramaten, jaka brodatua, aztaletarainoko botak eta, bukatzeko, kapela luzea, luma-erratza eta guzti. Horiek guztiak zuri eta urdinak. Ez zen baitezpada itsusia, baina bai dotorezia gabekoa behinik behin, eta ibilera militarrek ukitu komikoa gehitzen zion koadroari.

Neskatilak San Martzialetako desfilearekin parekatu zuen ikusten ari zena: gogora ekarri zituen kantineren gona luze dotoreak, haien jarrera duina, txilibituen soinu fina entzun zuen, konpainia haiek guztiak sortzen zuten harmonia, herriaren alaitasunaren adierazle. Zer ikusirik ez Mezoseko izter-desfile arrunt harekin!

Luis lerrokadaren alboan ezarri eta nesken ibilera imitatzen hasi zen, belaunak altxatuz urrats bakoitzean, beso bat tolesturik eta majorettekin batera irudimenezko makila itzularaziz, ikusleen begirada gaitzesleei kasurik egin gabe, poz-pozik. Ondotik zetorren fanfarreko musikariak imitatu zituen ondoren, bat banazka. Bonbo jole potoloaren ondoan zuen bide gehien egin, amak, 'Eon zaitxe geldik, lotsagabia halakua!' erranez, belarritik hartu eta geldiarazi zuen arte.

Laster ospetsu egin zen herrian mutikoa, eta ez baitezpada bere ideia onengatik.

'Okerra da geo gure mutikoxkor hau!'

Amak ez zekien gehiago nondik lotu semearen bihurrieriei aurre egiteko. Batean, auzoko katuak batu, zaku batean sartu eta txabolako teilatu gainetik banan-banan jaurti, beti lau hanken gainean erortzen direlakoa egia zenez zientifikoki frogatzearren.

'Ba ez, e, ezta denak salbatzen.'

Bestean, herriko atso guztiak latsagian zeudela, errekan gorago ur hondoko lohiak ongi nahastu, eta ur jarioa neurtzeko zegoen tranpa-ohola altxatu, ikuztegiara ur zikina bidaliz. Emazteen oihuak herri osoan aditu ziren!

Anak halako balentriarik batere ez. Ana Luisi begira, aitaren eskuen zainei begira, haren hatz luzeei (alabak aitaren eskuak omen ditu), amaren tripa handiari begira. Laster sortuko, omen, ninia.

Niniak baziren jadanik etxean bertan, auzoen apartamentuan, hain zuzen. Han bizi ziren Pettan eta Katalina, Baigorriarrak. Izan ere, euskaldunak atzemaitea izugarrizko pagotxa izan zen gipuzkoarrentzat. Amarentzat, batez ere. Katalinak lagundu baitzuen papereria guztietan eta eguneroko bizia ezitzen.

Pettan artzain ibilia zen Ameriketako hogeita bi urtez, eta handik bueltan, andrea sorterrian hartu eta Mezoseko zerrategian hasi zen. Urte luzeak artaldean konpainian pasatzeak zeharo mugatu zion adierazpena. Batzuei agian poesiarako gaitasuna garatuko zien; honi, haatik, holakorik batere ez. Gizon hertsia zen Pettan, dena zuen hertsia: bizkarra, burua, kopeta estuak ideien laburtasuna salatzen ziola, begi motelak, bata bestetik hurbilegi plantatuak. Helburu bakarra zuen Pettanek: dirua egin eta

Baigorriera itzultzea, han aberats gisa bizia bukatzeko.

Katalina emazteetan goxoena zen, dena zuen leun eta fin. Serora bati pentsarazten zion Anari, Irungo eskolan hurrez arduratzen ziren horietako bat izan zitekeen, hain zen xuri, mehe. Edozein momentutan gorputzik gabe gelditzeko modukoa.

Bikiak ukan zituen, alta. Bi neskatila, fin-finak haiek ere, baina bitxiak, burua handi eta gorputza mehe; Anari arras normalak iruditzen ez zitzaizkionak, hasteko. Eta espero zuen amak ez zuela agian halakorik erdituko. Lasaitu ere berehala: tripa-bonbona hartan bazen bikiak bezalako seirentzat adina leku. Eta medikuak batto baizik ez zuela segurtatu zuenez...

Behin baino gehiagotan, Anaren amak Katalina negarrez atzematen zuen, alabak eri edota ahul zeudelako, eta beti lelo bera izaten zen. Pilar haserre, haur horiei esnea baino ez ematea arriskutsua zela, behar zutela besterik, haragi eta barazki, indartzeko. Katalina negarrez, Pettanek ez zuela ezer entzun nahi, bildotsak esne hutsez hazten direla eta haurrentzat berdin dela zioela. Eta Pilar sutan, senar astakirten harekin gauza onik ez zuela, ea bere burua ardiekin konparatzea nola jasan zezakeen (errape huts haietatik ez zen bildots bakarra ere haziko, beraz bikiak...) eta ea alabak hil arte aguantatuko ote zuen.

‘Ze nauzu Pilar, hola da, ez dut fitsik iten ahal!’

Pettan harria baino zekenagoa zen, eta nahiz eta dirua ausarki metatua izan, jateko doia erosteko baino ez zion andreari uzten.

‘Honek tximinixako kedarrria re eleuke emango!’ haserre Pilarrek.

‘Umiak eiteko re, tiro batekin bikua irten zaio artzaia, hortan ere xurra!!’

Anaren aitak grazia ateratzen zion edozein egoerari.

Orduan, mendetako legeari jarraikiz, gordeka antolatu zuten emakumeek erresistentzia. Edo, zuzenago erranda, Pilarrek zituen neurriak hartu: etxean papilak eta pureak prestatu eta Artaburu jauna lanean zegoenean neskatoei ematen zien jatera. Baita gustura jan ere txikiek!

Aste gutitan gertatu zen eraldaketa: hamar hilabeteko zapaburuei beso eta iztertxoak bete zitzaizkien, matelak ere, lehenago aurpegia jaten zieten igel begiek tamaina normalagoa hartuaz, ilea ere areagotu zitzaielarik. Indartzen ziren neurrian, jartzen, xutitzen ere hasi ziren, irri egiten, jolasten... beste batzuek ziruditen.

‘Ikusteuzu, emaztia, esniaekilan aski utela!’

Denak kontent! Katalinari berari ere irriño kokina atera zitzaion auzo lagunari kontatzerakoan.

Tripa-bonbona lehertzeko unea iritsi zen, 1968ko martxoaren 30ean.

Erditze-gurutzezikatzeko mila sufrikario pasata, Akizen sortu zen Amaia, etxeko txikia, familiako frantses bakarra. Eta panpina bezain polita ez bazen ere, ederra zen, pottolo-pottoloa. Zimur franko ikusten zion

Anak eta eskutxo larrutuez kezkatua zen; ez ote zuen legena, bederen? Normala zela, lasaitzeko. Isildu zen, baina arrunt lasaitu ez. Herri hartatik deus onik ez baitzuen espero. Ongixko oroitzen zen iritsi eta pare bat aстера zorritz emokatuak gertatu zirela. Amak ez omen zuen sekula santan halakorik ikusi, ezta gerla denboran ere! Hura zen nazka, hura!

‘Behekoengatik, seguru!’ amak, neskatxaren ilean miaka.

‘Narrasak dia gero!’ (Klik! Zorri bat gutiago)

‘Ikusten ditxut bai, hazka ta hazka tximeta!’ (Klik!)

‘Nazkagarrixak’ (Klik! Klik!)

Susmopean zen familia Frantziako iparraldekoa zen, ch'timiak. Jende jatorra, baina Pilarren irizpideen arabera, ‘txarrixak baino zikinaguak’.

Luisen adin bereko semea zuten, Patrick, mutiko alaia, bisera gabe inoiz ikusi ez zutena.

‘Hoixe, biseria bai, ta azpiban, zorrixak multiplikatzen!’

Ettxera maiz etortzen zitzairen, Luisen bila, eta Pilarren patata tortilla itsuski maite zuen: ‘Om'let' de pom' de ter”, oihukatzen zuen, emazteak errepika zezan. Huraxe izango zen Mendaroko Pilarrek ikasitako frantseseko lehendabiziko gauza.

Zorriez gain, Patricken etxekoek bazuten beste altxorrik: telebista. Eta haurrak, nola ez, liluratuak zeuden, ikusten ahal zutelarik. Baina kasu, ez pentsa tresna hura nolana hiko zenik: martxan jartzeko txanpona sartu behar zitzaion, eta txanponari zegokion denbora agortzean, adio. Itzaltzen zen eta kitto, beste norbaitek beste moneta bat botako zion arte.

‘Pettanena izan behar zuen traste horrek!’

Anaren aitak, barrez, alabak hainbeste maite zuen soinu-gabeko irri hark sorbaldak saltarazten zizkiolarik.

Haurrek, aldiz, umore gutiagorekin hartzen zuten kontua, noski. John Waynek Natalie Wood indioengandik salbatuko zuenez ez dute sekulan jakin.

Dena dela, telebista ikusterik ez izanik ere, bazuten han beste ikuskizunik. Patricken amak larunbatero etxe aurrean desfilea antolatzen baitzuen, mozkorraren eraginez, buru gainean sukaldeko iragazkia jantzi eta gogotik kantuz ari zela. Senarra, aldiz, etxean gelditzen zen, bera atarira ateratzeko ere gauza ez izaki!

‘Narrasak ta mozkor lotsagabiak! Umiak, etorri zaitxezte barrura segitxuan!’

Amaia egunetik egunera politago bilakatzen ari zen, eta Anak onartu behar izan zuen amak egia esan ziola, normala zela; eskutxoetako azalak bete zitzaizkion, hatz erroetan zilotxo adierazgarriak markatuz; antzeko zilotxoa ere ateratzen zitzaion ezkerreko masailean, irri egiterakoan, eta irriño bereziak berari zuzentzen zizkiola iruditzen zitzaion ahizpari, ‘ez kexa, laster alde egingo dinagu hemendik’ errango balio bezala.

1968ko maiatzean han zeuden betiere, baina bazirudien Europa guztia inarrosi zuen oldar uhina Mezos uhartearen ondotik pasatu zela, ziliporta ttanttarik utzi ere egin gabe. Herri fosildu harengan ezin ezerk eraginik ukan.

Aita, lehengo bizian, kamioilari gisa aritu zitzairen Irunen, lagun batekin enpresatxoa sortu ere egin zuen, adiskide onak kutxa eta guzti alde egin zuen arte.

Gizonak negoziarako gaitasun handirik ez zuen, maleziatik ez baitzuen mikorik, eta, bestalde, eskuzabalegia izaki. Etxean zegoen apurra banatzeko prest zen beti, inor etorritz gero.

‘Atera, ateraizu ardo pixkat eta jateko zeozer. Tragoxkara bat eingo deu behintzat.’

Eta andrea isilik, baina barnak irakiten ziola, arroltze moleta, xingar eta tomate prestatzera, plater hartan ematen zuena biharamuneko erraziotik kentzen zuela ohartzen zen bakarra baitzen, errealitatearen kudeaketa zuhurra bere kontu egonik.

Hule loredunez estalitako mahai haren inguruan biltzen ziren zerrategian lanean ari ziren haiek bezalako etorkinak. Haiek bezalakoak, baina haiek baino okerrago zeudenak aitaren ustez, haiek familiarik gabe zeuden eta. Ez zegoen eztabaidatzerik. Atea zabalik bilatuko zuten beti etxean eta jateko zegoena banatuko zen denen artean. Horiek ziren etxe hartako legeak: inor ez da ate aurrean uzten. Sartzeko esaten zaio jendeari. Eta sartu ondoren, zerbait eskaini behar zaio. Elkartasuna txikitatik ikasi zuten haurrek aitarengandik. Etxe hartatik pasa ziren andaluzak, portugesak, galegoak, denak ongi etorriak ziren. Baina hori bai, eta hau beste lege hautsezin bat zen, beren artean egon orduko, euskaraz hitz egin behar zuten. Euskaldunak zirela esan behar zioten espainoltzat zituen orori, zuzenketa ezinbestekoa zen. Ez ziren espainolak, euskaldunak baizik, eta harrotasunez aldarrikatu beharko zuten hori bitzta osoan!

Etsaiak zeintzuk zituzten ere argi zen: frankistak eta txakurrak. Nuarbeko Jose-Manuelek ez zuen dudarik, eta 1968ko ekainean ETAk Meliton Manzanask garbitu zuelarik, Mezoseko Jendarmerian sagardoa edanez ospatu zen, ‘manzana para Manzanask!’.

Beste lege sakratua, honako hau: iganderoko garbantzua. Eguna dotore seinalatzeko, aitarentzat ez zen modu hoberik: bazkariko, garbantzua, haragi egosiarekin. Haurrek nahiago izango zuten beste edozer, baina hala zen eta ez bestela; Gabonetan bisigua, San Josetarako angulak, eta igandeetan garbantzua. Eta kitto.

Goserik ez zuten pasatu dirudienez, orduko argazki bakanez neska luxe txankamehe triste bat erakusten badute ere. Anak sufritzen zituen eskasiak bestelakoak ziren, ordea; eta hamaika jakik baino mesede handiagoa zerk egingen zion bazekien: Euskal Herrira itzultzeak. Itzaropena ez zuen ez galdu, egunak bere egutegi mentalean marratzen zituen, presoan gisara, baina kondenaren muga ezagutu gabe! Zerbait gertatu beharko zen nahi eta nahi ez handik alde egin zezaten. Horretan zalantzarik ez zuen.

Uda bertan igaro zuten, alabaina. Uda bero zakarra. Aitak auto bat eskuratu zuen, bigarren mundu gerrako filmetan agertzen diren Citroën beltz haietako bat; eta, igande batez, hondartzara eramango zituela. Mimizan-era buruz abiatu ziren, bada. Autoa utzi eta oinez hareazko malda igo behar, pinuak han

ere, eta itsasoa azkenean.

Horretan ere, Anak zuen hondartzaren oroitzapena aski argia zen, Hondarribira autobusez joaten baitziren lehengo bizitzan; eta hondarretan jostatzen ziren; eta uretan bainatzen ziren; eta uhainetan saltoka ibiltzen ziren. Bada, ahantzi hori ere, Landetako itsasoa hain zen bortitza, non ezinezkoa baitzen bainatzea. Baina, tira, itsasoa, behintzat, ikuspegia mugatzen ez zuen mundu irekia, arnas zitekeen aire gazi bizia. Eta han, ikusmugaz bestaldera, neskatzaren erroak, bere ametsak han nonbait, inoiz baino hurbilago. Edo urrunago...

Eta momentu hartan bertan, itsasoari begira zegoela, gertatu zen. Lehenik, buruko min ikaragarri batek etzan zuen hondar errearen gainera, eta arnasa hartu ezinik egon zen une batez, ingurukoak ezertaz ohartu ez zirelarik. Harriduraren ondoren, ez zuen beldurrik sentitu; alderantziz, sentipen atsegina zen hura: hondar errearen kontaktua, eguzkiaren usain beroa eta bera hantxe, inguruaren kontzientzia galdurik, beste mundu atseginago baterako atean nonbait, gustura.

Ez zuen, haatik, luzaz iraun momentu magikoak. Iratzarri zenean, hondarraren laztasunaren eraginez hotzikarak zabaldu zitzaizkion gorputz osora eta errealtate gordinera itzuli behar izan zuen. Baina esperientzia horren oroitzapena ez zuen galdu eta ez zezakeen susma istripu haren ondorio harrigarriak zein izanen ziren.

Amets bidaiak

Lehendabiziko ondorenak gau hartan bertan jasan zituen. Sukarraldi bortitz batek astindu zuen, lo sakonetik iratzarrarazi zuen arte. Beste batek, agian, gurasoak deituko zituen, baina Anak ez. Dena beregain hartzen ohituta zegoen eta jakin bazekien amak aski lan zuela Amaiaren negarrak kontsolatzen (niniak belarriko min handiak izaten zituen); eta aitak goizean goiz lanera joan behar zuela, lo guti egin eta; beraz, neskatzak disimulatzen ikasi zuen, lanik ez emateko ahalegin guztiak eginez.

Izerdi hotzak maindireak busti zizkionez, estalkian kiribildu zen eta leihotik hurbildu, ilargi betearen argitasun eztiak erakartzen zuela. Eta hor, gorputzetik atera zela ohartu zen: logelako sabaitik ikus zezakeela bere burua zutik, leihoari begira, estalki marradunean bildurik, eskuineko oina ezkerrekoaren gainean gurutzaturik, usaia zuen bezala, eta dardarka.

Ohea zimurturik zegoen, gaineko mihisea oinen aldean bildua, burkoan izerdiaren hezetasunak itzal berezia markatzen zuen. Kadira gainean, Anak erantzitako gona berdeak pleguak lurreraino zabaltzen zituen, abanikoa larruzko zapata beltzetaraino luzatuz. Eta gau-mahaian, eskolatik hartutako Les malheurs de Sophie liburu barneko orri-markatzailea ageri zen.

Beste Anak, haatik, sabai gainekoak, ez zuen ez sukar, ez hotzik, alderantziz, inoiz baino arinago eta beteago sentitzen zen. Hondartzan bizi izan zuenaren antzekoa zen, baina oraindik ere bikainagoa: Irungo bizitzaz oroitzeak sortzen ziona bezalatsu.

Beldurrik ez zuen batere sentitzen, alderantziz, ausardia mugagabea, edozertarako gaitasun txundigarriak zuen betetzen. Kanpora begiratu zuen, ilargirantz, hain maite zuen ilargirantz, eta hegan joan zitekeela pentsatu orduko, kanpoan zen, Jendarmeriaren teilatu gainetik zihoala; eta gaua

izanagatik, belar punta bakoitza, bakoitzaren kolorearen ñabardura, bakoitzaren luzera berezia bereizten zituen, eta ez zen zaila, berez zihoan gauza zen. Ohartu zen, ikusteaz gain, usain zezakeela ere lorategian amak landatutako arroso bakoitzeko arrosa bakoitzaren lurrina: arrosa horiarena gozo-gozoa zelarik, gorriarena berriz beroagoa; eta usain bakoitzak bere tokia zuela, ez zuela batak bestea tratatzen, Madame Barisek ikasgelan koloretako margoak ordenatzen zituen bezalaxe, bakoitza bere tokian. Zoragarria zen benetan. Dena gogoan atxiki nahi zuen, dena dastatu, usaindu, entzun eta ikusi nahi. Eta zentzu mozhortze horretan zebilela, konortea galdu zuen.

Bere onera itzuli zenean, estalki marradunaren barnean zegoen, sukarraldia baretu zitzaion, eta ohera itzuli zen, amestu ala bizi zuenaren aztarna izate osoan zeramala.

Uda hartan ospatu zen Amaiaren bataioa; Mezoseko euskaldunentzat hori gertakari gaitza izan zen, senide batzuek bidaia eginen baitzuten bertaraino. Pilarren ahizpa Felisa eta Bixente senarra etorri ziren, Amaiaren aita-ama ponteko izendatuak izan baitziren.

Jose-Manuelek anaia bakarra zuen, Inaxio, mutil zaharra eta hark autoa gidatzen ez zekienez, horretan mugatu zen gonbidatuen zerrenda. Pettan eta Katalinari ongi etorriak zirela esan zien bai Pilarrek, baina Pettanek aitzaki-maitzaki bat bilatu zuen gomita ekiditeko, oparitan gasturik ez egiteko hain segur. Katalina pozik etorriko zen, baina senarraren meneko otzana izateari ezin utzi.

Elizan ospatu zen bataioa. Egun seinalatu horretarako, denak apain-apain prestatu ziren: Pilarrek soineko urdin ilun lepo zuri zabalekoa erosi zuen okasiorako eta senarrari larru koloreko jaka jantzaraztea lortu zuen; baina atorra beso luzeari, jantzi orduko, mahukak urratu zizkion gizonak, ukondoetaraino jasotzeko, ez baitzuen bestela jasaten. Luisek berak ere bazituen bere maniak: hamar urterekin, galtza luzerik ez zuen jantzi nahi, ezta negu gorrienean ere. Galtza motzak jarri zituen beraz, alkandora zuriarekin. Anak amak hautatutakoa ezarri zuen: soineko loredun motza, eta ile horail luzearekin belarrien inguruetan biribilduriko bi txirikorda orrazten utzi zion, Luisen isekei gor eginez.

Amaia ez zen ia ageri puntilla txuri eta begizten artetik. Pilarrek harro-harro begiratzen zuen bere familiatxoa, txukun eta apaina, gustatzen zitzaion bezalakoa. Pilar oso irtirina zen; edozein tokitara joateko, baita gutunontzira baino ez bazen ere, amantala erantzten zuen eta ezpainetan gorri pixka bat ematen, badaezpada ere. Anari barregarri zitzaion ohitura hori, Mezosen ez baitzen inor ageri etxe inguruan, auzoko zorritsuak izan ezik! Irunen egongo balira, tira... Baina Pilarri bost. Basamortuan egon arren, ez zukeen ohitura aldatuko. Norbere buruarekiko errespetuaren izenean. Amen.

Elizkizuna hasi baino minutu batzuk lehenago iritsi ziren Mendaroko senideak. Anari sinestezina iruditzen zitzaion osaba-izebak Mezosen ikustea, eta espazio ontzi batetik jautsi izan balira, ez zen gehiago harrituko. Harritu bai, poztu ikaragarri! Bere mundua zeharo suntsitu ez zelako lekukoak ziren Tia Felisa eta Tio Bixente. Hildakoen mundura bizidunen mundutik zetozela iruditzen zitzaion, itxaropenezko mezu ekarle.

Besarkada haietan betiko lotuta geldituko zen neskaxa, itolarrian dagoena buiari lotzen zaion bezala; tiaren usai gozoa arnasten zuen birikak lehertu beharrean, tioren hitz goxoak ahogozatzen zituen. Gurasoen poza ere nabarmena zen. Edo, hobeki erranda, aitarena. Pilarren baitan poza eta lotsa lehian ari baitziren. Ahizparen aitzinean itxura mantendu nahi zuen: dena primeran zihoan primerako mundu

bikainean!

Felisak eta Bixentek sinetsiarena bikain egin zuten, eta dena bikain iragan zen. Eliza bikainean sartu eta bataio bikaina eman zuen apaiz bikainak, Amaiak bikain bota zuen orro bikaina ur bedeinkatu bikaina kopetan behera hartzean.

Bazkaria etxean gertatu zen. Euskal Herriko produktuak ekartzearen aitzakiaz, osaba-izebek etxea jakiz gainezka utzi zuten: txorixo, urdaiazpiko, oliba, txistor, solomo, gasna, turroi, mazapan, arno, sagarno, Mendaroko bizkotxoak eta txokolatea..., Ali Babaren harpea zirudien sukalde xumeak.

Pilarrek etxea bisitarazi zion ahizpari, koinatuek topa egiten zuten bitartean. Anari izebaren ohar baikorrek gehiegizkoak iruditu zitzaizkion, baina ama lasaiago ikusten zuen, lotsaldia pasatu balitzaio bezala. Felisa beti izan zen oso adierazkorra:

‘Ene! Ene! Ze soineko dotoria daukazun!’ Anari.

‘Ene ba, ze praka dotoriak daukazuzen!’ Luisi.

‘Ene, Pilar, bai ondo zaudetela hemen! Leku trankila behintzat!’

Alaitasuna sarrarazi zuen etxe ilun hartara eta Mendaroko bi ahizpek berriak trukatu orduko joan zen eguna, eta bakoitza itzuli zen bere mundura. Anak izeba-osabak espazio ontzian sartzen irudikatu zituen, eta beraien planetara abiatu zirelarik, bere buruari hitzeman zion egunen batean haienganaino iritsiko zela amets-bidaian, horrela deitu baitzuen sukar-gaueko esperientzia.

Zoriturrez, ez zuen haurrak erabakitzen amets-bidaiak noiz gertatuko zitzaizkion; saiatu zen, bai, begiak itxi eta gorputzetik irteten zuela irudikatzen, baina ez zuen nahi zuena lortzen. Gehienetan, botaka bukatzen zuen saiakera.

Pilar kezkatzen zen noizean behin alabarengatik, batez ere hain guti jaten zuela ohartzen zelarik. Izan ere, Ana txorikumea bezain aise asetzen baitzen, eta horretan ere amari plazer egiteko ez zen gehiago jateko gai izaten.

‘Ume, jaizu barren txorouseinak lagata, gaixotu eingo zea ta! Beitxu iozu Amaiari: laste zuk baino geixo pisauko deu ta!’

Amaiarekiko konparaketak alferrikakoak ziren, haatik. Anak ezin zuelarik ezin zuen. Ogi papur bakarra ere ez zezakeen irents asea zelarik. Are gehiago, nazka sortzen zion janari usainak eta askotan bere buruari gogor egin behar izaten zion mahaian zerbait hartzeko. Fruta zen gustura jaten zuen bakarra. Baina gosea gutitan sentitzen zuen eta ama hor izan ez balitz, lasaiki igaro zitzakeen egunak baraurik. Gainera, amets-bidaian hasi zenetik, arinago izatearren edo, gutiago elikatzen zen, horrela gorputzetik errazki airatuko zelakoan.

Bazen, halere, astean behin zertxobait jaten zuen momentu berezia: igande goizean aitarekin hartzen zuen hamaiketakoa. Hor aita-alabak buruz buru aurkitzen ziren, eta Pilar etxeko lanez eta Amaiaz arduratzen zen bitartean, eta Luis herrian bihurrikeria berriren bat planifikatzen buru-belarri zebilela, erritu bilakatu zena ospatzen zuten biek.

Zeruko argia astekaria irakurtzen zuten elkarrekin, eta aitak zartaginetik bertatik jaten zituen arrautza frijituak eta txistorra alabarekin banatzen zituen; eta haurrak oharkabean jaten zituen aitaren sardexkatik, bertsoak irakurtzen zituzten bitartean. Jose-Manuel bertsozalea zen eta Txirrita, Uztapide eta Lazkao Txiki miresten zituen. Ana ahozabalik egoten zen kontu haiek entzuten, aitak gogoan atxikitako bertso parrasta kantatzen zionean, komentario eta guzti.

Maiz kantatzen zuen Txirritak hasiera haietako txapelketa batean azaldu zelarik botatako bertsoa, bera sagardotegiko bertsolari izaki eta Donostiako handikeria ikusiz sortu zuena:

Larogei urte gainean ditut
nago hanketako minez
Donostiara etorria naiz
herren haundia eginez.
Bi bastoiekin txit larri nabil
pausorik eman ezinez.
Euskera ia ahaztu zait eta
erderarikan jakin ez.
Maixu batekin eskolan laster
hasi behar det latinez.

Eta azkena kantatzean, eri erakuslea astintzen zuen Jose-Manuelek, ustezko etsaiei buruz, euskararen defentsarako ezpata saildua bailitzan. Eta Anak bete-betean jasotzen zuen gizonaren asalduraren zuzentasuna, arrautza frijitudan bustitako ogiaren gustuarekin batera.

Mezoseko etxean benetako esanahia hartzen zuen Zeruko argia-k. Bizi ilun hartara argitasun izpia paperean bilduta, altxor baten antzera ekartzen zuen aitak astero, bitartekari misterioitsu bati esker, eta bertan irakurtzen zizkionak alabak erabat ulertzen ez bazituen ere, oxigeno bafada baten modura hurrupatzen zuen iganderoko hamaiketakoa.

Pillarrek alabari jateko agintzen zion aldi berean, bere buruari zernahi zigor jasanarazten zion argaltzearren. Haurdunaldietan metatutako kiloak gaineratik ezin kendua sufrikarioa zitzaion eta edozertarako prest izaten zen gaztetako oroimenezko irudiari hurbiltzeko. Izan ere, Pilar oso neska liraina baitzen gaztetan. Berak harro aipatzen zuen nola bi eskuez gerriaren buelta egin zezakeen!

Berrogei urterekin gerria loditu izana jasangaitza zitzaion. Senarrari, haatik, halaxe gustatzen zitzaion andrea, eta ondotik pasatzen zen guztietan, ipurtaldea ferekatzen zion, emazteari amorrazioa eraginez.

‘Txipi, earra zaude ta!’

‘Bueno, bueno, mesedez, geldik eon zaitzez!’

Txipi zen andreari Jose-Manuelek ezarri zion izengoitia. Gizonak bazuen denentzat ezizenik, eta Anak ez zion sekulan entzun norbaiti bere benetako izena ematen. Andrea txipi zen, katu begiak zituelako, pitxitxi, txipi.... Luis koxkor zen, ulertterraza zen arrazoiagatik. Ana berriz, kiri, txikitan arrautzari kiritzia esaten ziolako eta Amaia txatu, sudur motzagatik. Eta horrela inguruko guztientzat; nagusia alua deitzen zuen, besterik gabe. Lucas andaluzar Luki Luciano bataiatu zuen, auzoko Patricken ama la generala zen, desfileengatik; senarra el general eta semea omele, patata tortilla gustatzeagatik. Pettan artzaia zen,

Katalina mojatxua eta alaba bikiak tirodobliak.

Eta hurrek, amarengatik izan ez balitz, ez zituzten jakinen etxe hartan aipatzen ziren gehienek izen ofizialak. Otorduetako elkarrizketetan naturaltasun osoz gonbidatuak ziren Buruhandi eta Cantinflas, Faustokopiren berri galdetzen zen, Turtur gaixorik egon zela komentatzen zen, Macarras joan zitzaiola bisitan Patxibigotesekin...

Eta Pilar, beraz, Txipi. Aldizkarietan bi astez zortzi kilo kentzeko ikusten zituen errezeta guztiak saiatzeko zituen, izan pilulak zein erregimen bereziak. Behin jakin zuen zigarro erretzeak gosea mozten zuela. Eta hara non abiatu zen Pilar zigarro erostera. Gustu hobea izango zutelakoan edo, menta gustukoak hautatu zituen, eta etxera. Lehendabizikoa piztu eta erretzen hasi zen bada, baina berehala nazkatu eta gustu txarra kentzearen txokolatezko bonboia jan zuen! Hasi orduko bukatu zen Pilarren erretzaile garaia.

Hori irigarria bazen, pilulekin jostatzeak ondorio larriagoak eragin zizkion emakumeari. Hau da, kiloak galdu zituen, bai, eta kiloekin batera umorea, zainek gaina hartu zioten arte, eta ez zen giro haren inguruan garai haietan. Edozergatik sumintzen zen, oihuka ari zitzaion hurrei eta eskua joaten zitzaion behar baino maizago. Eta halakoetan, Anari zeharo eteten zitzaion jateko gogoa, amaren haserrea areagotuz.

Aitak zuen giroa baretzea lortzen. Aski zuen ahotsa altxatzea isiltasuna nagusi zedin berehala. Jose-Manuelek ez zuen inoiz haurrik jo, berezko autoritatea zuen. Gizon gozoa izan arren, ukabila mahai gainean tinkatzen zuelarik, inguruko iskanbila eta zaratak kuxian gelditzen ziren.

‘Trankil biar da bizi! Pakia biar deu! Kiri, jan biar ezpaezu, ohera!’

Ana ohera joaten zen, zigorrari eskerrak emanez. Halere, aitaren kexuaren iturri izatea oso gogorra egiten zitzaion neskaxari. Amaren oihuekin ohituta zegoen, eta bazekien nola jokatu: belarriak zerratzen zituen barnetik, eta ekaitza pasatzera uzten zuen. Aitarekin aldiz, ezin hori egin. Aitaren baitan sentitzen zuen etsipenak bihotza erditzen baitzion eta errudun zela pentsatzea jasanezina zitzaion.

Afaldu gabe oheratu zen uztaileko arrats batean gertatu zitzaion bigarren amets-bidaia. Aldi hartan, etzanik zegoela zuen gorputza utzi, eta iruditu zitzaion aho zulotik atera zela, baina ez zen hortaz ziur. Sabaian kokatu zen, aitzineko aldiaren bezalaxe, eta gelari erreparatua eman zion, baina lasterrago. Bere buruari ere doi-doi begiratu zion, etzanik ahoz gora zegoela erreparatuz. Eta kanpo aldera jotzeko gogoa zuela konturatu bezain laster, baratzearen gainetik hegan zihoan eta ibilbidea kontrola ezinean abiatu zen pinudian barna, errekatxoraino. Han berehala ezagutu zuen besarkatu ohi zuen zurzuri dotorea eta, une batez, goiko hostoetatik zintzilik gelditu zen, dilindan; abar batetik bestera jautsiz, enbor luzetik behera lerratuz joan zen, arbolarekin bat eginez, posible zitekeela inoiz pentsatuko ez zukeen bezala; zurzuriaren zerizana bilakatu zen, haren baitan murgildu, haren izerdi-taupada epelek busti zuten arte. Maitasuna ote zen zuhaitzak ematen zion hura? Anak halaxe hartu zuen behintzat, eta bat-batean errekan aurkitu zen, uharri xabalen artean, uraren gulu-gulu kantaria gozatzen. Izkira zuri bati bidea ireki zion; honek eskerrak eman zizkion eta neska ez zen hortaz harritu. Korrontearekin jostetan hasi zen Ana, zapatarien zango luzeen artetik gordeka, eta urari gustua aldatzen ari zitzaiola jabetu zen, gazitzen ari zela, alegia, itsasotik hurbildu ahala. Itsasora heltzea bikaina zitekeela pentsatu zuen haurrak, baina hantxe utzi behar izan zuen ibilaldia, istant batean ohean baitzegoen berriz ere, ahoz gora lotan.

Biharamun goiza deus gertatu ez balitz bezala iragan zuen neskak, Amaia zaindu zuen amak herriko auzapezaren etxean garbiketa ordu batzuk egiten zituen bitartean; ondoren bazkaldu edo mahaian egon zen, bederen; arratsaldea errekan pasatu zuen eskolako lagunekin.

Danièle

Bero sapa izaten zen herrian eta erreka freskura eskertzekoa izaten zuten haurrek. Hara iritsi eta denek uretara jauzi egiten zuten; denek, batek izan ezik.

Danièle zortzi urteko neskak, Anaren justu kontrako itxura zuen, larru beltzarana, begi eta ile beltzak zituen mezostar potoloak. Umorez ere itxuraz bezain iluna zen haurra, eta Ana zen hura alaitzea lortzen zuen bakarra. Ez zion besteen moduan galdetzen ea zergatik ez zuen bainatu nahi, ez zion trufarik egiten mahuka luzetan agertzen zelarik berorik zakarrenean. Bainatu ondoren, bere ondoan esertzen zen eta Madame Baris imitatzen zuen, eskolako azken egunean ikasitako olerkia haren ahotsa hartuz erranez, galdera bakoitzean doinua aldatuz:

La mer s'est retirée,
qui la ramènera ?
La mer est démontée,
qui la remontera ?
La mer est emportée,
qui la rapportera ?
La mer est déchaînée,
qui la rattachera ?
Un enfant qui joue sur la plage
avec un collier de coquillages.

Eta Danièlek irri egiten zuen, une batez bere tristuraren sekretu astuna ahanzten, Anaren imintzioei esker. Anari gustatzen zitzaion lagunaren irria entzutea, karkaila ozena askatzean burua gibelera nola botatzen zuen ikustea. Eta 'Avec un collier de coquillages' erratean, madame Barisen bularralde betea imitatzen zuen, ipurdia atzera botaz eta urrats batzuk emanez, ikaskideari beste algar bat eraginez.

Behin, horrela zebiltzala, Danièleri atorraren gerrialdea altxatu zitzaion eta Anak ikusi zizkion hain artoski ezkutatzen zituen uspelak: bizkar erdia estaltzen zioten. Baina ez zion adiskideari deusik aipatu.

Aipatu beharrik ere ez; bere begirada urdin-grisarekin aski izan baitzuen Anak lagunaren arimaraino sartzeko; eta begirada sakona Danièleri fereka baten gisakoa izan zitzaion, zauriak bat banazka gozatzeko ahala zuen fereka sendagarria.

Anak, berriz, adiskidearen pairamenak berak biziko balitu bezala sumatu zituen, aita horren bortizkeria, ankerra bezain koldarra, ukaldien gogorkeria, gizonak bere ezintasunaren mugak marratzeko lez, behin eta berriro larru biguna joka markatzeko ahalegina; horiek denak irakur zitzakeen Anak begiratu batean. Eta une labur hartan, begirada urdin gris horren iraute laburrean, finkatu zen bi haurren arteko lotura, sekretuaren korapiloak bermaturiko lokarri tinkoa.

Gau hartan bertan Anak amets-bidaia berri bat bizi izan zuen, amets gaizto baten antzekoa hura. Gela ilun eta hertsu batean zegoen neskatxa, soineko zuri batez jantzia, oinutsik, zoru heze eta hotzean. Halako batean, soinekoari begira jarri zen eta orban odoltsuak hasi ziren oihalaren zurtasuna gorritzen.

Hasteko, orbanari zegokion gorputz atal bakoitzean odol jarioaren berotasuna sentitu zuen; eta laster, zauriek eraginiko oinazea, eta oinazea jasangaitz bilakatzen ari zelarik atera zen Ana gorputz minberatutik; iruditu zitzaion zainetatik jalgi eta zeldako ate gainean berrosatu zela. Ez zen ordea han luzaz gelditu, ate azpiko tartetik pasatu eta kanpora atera baitzen berehala.

Paisaia nolakoa zen ohartzeko astirik ez zion eman, eta eraikuntza desberdinetako hormak zeharkatu zituen, arrapaladan, batzuek latzak, besteak leunak, berinazkoak zituelarik gogokoenak, gardentasunagatik bere izatea biderkatua nabaritzen zuelako, ispilu lerrokada batek espazioa errepikatzen duen bezalaxe.

Eta etxe bakoitzaren arima berpizten zuen bertatik pasatzean, irudi garbi bezain iheskorak sortuz, denboraren dilatazio eta konpresio hartan. Bikoteen gorputzak nahasten, elkartzen, erditzeen irudi gogorak, haurren jolasak eta borrokak, eritasunen kiratsak, herioaren melodia hitsak, eta, bat-batean, lur ilunaren hezetasun epela, isiltasuna... Airea, airea eskas, ahoa ireki arren birrikak bete ezina, sudur zuloak lur beltzez beteak, ahoan ere lur gustua.

Ondoko goizean Anak lasaitu ederra hartu zuen ohe garbian esnatzean, eta egun hartan arnasaldi bakoitza gozatu zuen, bere baitan aire erreserba baten egiteko asmoz, beste inoiz gertatu beharko balitzaio edo...

Udako oporrak bukatu ziren, eta eskolara abiatu ziren haurrak. Anarentzat ez zen gauza handirik aldatu, Madame Baris izanen baitzuen berriz ere irakasle.

‘Berriz madan Barriz!’ zioen Jose-Manuelek irriz, ‘ederra bularrez, ederrago gerriz!’

Ikasgela aldatu zuten, alabaina, orain handien gelara pasatzen baitziren. Eta nagusitasun delakoaren adierazlerik nabarmenena irudien urritasuna zen. Bazirudien kontu serioek koloregabeak izan behar zutela, zuri-beltzezko mundu hitsean mugitzen zirela ideia eta kontzeptu garrantzitsuak; eta haurtzarora agurtzen joateko, inprimategiko karaktereek osaturiko paperezko bide grisean ibiltzen ikasi beharra zegoela.

Horma-irudien ordez horma-hizkiak zeuden; mapamundia bera ere zurbil zegoen, hainbeste ikasturtetan hainbeste ikasleren ezjakintasun geografikoak eraginiko asealdiak eraginda bezala. Bestela, betiko zurezko mahai lerrokadak, betiko ikatzez kargatu beharreko berogailua, betiko apalategiak, kaierez eta liburuz hornituak.

Tokiak ere lehengoko berak atxiki zituzten ikasleek, guti gorabehera; Ana aitzineko lerroan kokatu zen, irakaslearen oholtzaren pare-parean eta beste ikasleak beren sailkapenaren araberrako distantzian, txarrenak gibelego hormaren kontra kondenaturik zeudela, madame Barisengandik urrun, baina atetik hurbil, jolas garaira irteteko unean lehenak bilakatzen zirelarik, zigortuak ez zirenean noski.

Mahai bat hutsik zegoen, haatik, Danièlerena.

Madame Barisek azaldu zien Danièleren familia beste herri batera zihoala bizitzera, Akizen zabalduko

baitzuen aitak mediku kontsulta berria. Agurtzera etorriko zela arratsaldean eta helbideak trukutzen ahalko zituztela, elkarri idatziko ziotela, harremana atxiki zezaketela egunero ikusiko ez bazuten ere... Erretolika merkea ongi saldu zuen irakasleak, baina Ana ez zuen engainatu; ongi zekien Anak urruntasunak aitzurtzen zuen amildegia gaindiezina zela eta emakumearen hitzaldia hutsala iruditu zitzaion.

Arratsaldean, Danièle aitarekin ikasgelako sarreran agertu zelarik, Anari bihotza hozmendu zitzaion. Gizonari begiratu zion, behetik gora; gizon handi eta indartsuari zehazki so egin zion, jantzi dotore eta garestien azpian ezkutatzen zen gizon bortitza ikusi zuen, ezkerreko esku-estokak alabari eskutxoia nola estutzen zion, itxura adeitsua nola lantzen zuen irribarre zabalak lau haizetara barreiatuz. Irakasleari urre-paperez bilduriko oparia eskaini zion, baita goxoki pakete handia ere ikasleentzat.

Anaren begi urdin-grisak gurutzatu zituen une batez gizonak eta haurrak begirada iltzatu zion barneraino, lotsarik lotsagarrienak zapartatzeraino, eta mediku ospetsuak neska mehe horailaren epaiketa isila bete-betean hartu zuen, bazekiela jakin zuen eta alabari nahigabe eskua askatu zion. Orduan, Danièle Anarengana hurbildu zen eta bi lagunek elkar besarkatu zuten. Luzaz egon ziren horrela, besarkaldi samurrean, eta isilpeko laztan luze hartan amarratu ziren haurrak, bien arteko esteka tinkatuz.

Baina luze gabe esku gogorrek bi adiskideak bereizi zituen eta Danièle eraman zuen burumakur, bere paturantz, Ana bere ezintasunarekin utzirik.

Orduantxe pentsatu zuen Anak jendearekiko atxikimendua neurtzea komeni zela, gehiegi ez sufritzeko gisan, eta gizon gaizto hura hil zedin desiratu zuen.

Ondoko gauean, amets-bidaian abiatu zen, Mezos herria zeharkatu eta zitzu bizian Akizeraino iritsi zen, eraikin berri baten gainean gelditu, eta berehala asmatu zuen non zegoen.

Danièleren etxe berrian, hain zuzen. Horma sendoa zeharkatu zuen inongo zalantzarik gabe, eta logela batean aurkitu zuen bere burua. Altzari ederrek argizari usaina botatzen zuten, eta armairuaren ispilu atzean kokatu zuen une batez, zur beroak eta mirail hotzak sortzen zioten kontrastea gozatzeko. Zegoen lekutik, ohe zabala ikus zezakeen, baita gorputzen arnasketa sumatu ere.

Bi hatsartzeak ongi bereiz zitzaizkeen: bata arina, zalantzati, ez zitzaion loari osoki ematen, erne egon behar izan balu bezala, erasoari aurre egiteko prest, baita gauaz ere. Bigarrena, berriz, sakona, astuna, erregularra, espazio osoa betetzen zuen erritmo ahaltzua zen. Gizonarena.

Eta ezer erabaki gabe Ana arnas sakon horren muineraino murgildu zen eta bertan hanpatu zen, gizonaren birrikak betez, haren sudur ziloak itxiz, itolarrian zegoen gorputzaren ahaleginak eragotziz, borroka geldia kontrolatuz bihotza gelditu zion arte.

Logelan emaztearen arnasketa nagusitu zen, bere lekua emeki-emeki hartuz, espazioa bereganatuko balu bezala, azkenean. Anak emakumea lo lasaiaren eskutan utzi zuen eta iritsi bezain laster bueltatu zen Jendarmeriako ohe txikira.

Hurrengo goizean, eskolara iritsi eta Madame Barisen inguruan beste guraso taldetxo bat zegoen, isilpeko berriak emateko helduek hartu ohi duten doinu apalean hizketan. Laster zabaldu zen berria: Danièleren amak senarra hilik atzeman zuela ohean atzartzean. Suhiltzaileen ahaleginak alferrikakoak izan ziren gizona salbatzeko, bihotzekoak emanda hil baitzen gauean.

Ikasgelan marrazkiak eta gutunak idatzi zituzten hurrek Danièleri bidaltzeko. Anak Mezoseko errekatxo polita marraztu zuen, zurzuri garaiak lerrokatu zituen ur hegian, eta eskutik heldutako bi neskatila irribarretsu margotu zituen. Zeru urdinean eguzki borobila kokatu zuen, eta hari ere irri zabala itsatsi zion.

Ez zuen tristurarik sentitzen lagunari gertatutakoarekin, bere azken amets-bidaia ez zuen ongi gogoratzen, eta ez zuen inondik ere loturarik egin bizitako esperientzia eta medikuaren heriotzaren artean. Baina penarik ez sentitzeak harritu egin zuen haurra, gehienetan inoren nahigabeak bere egiteko gaitasun ikaragarria izaten zuen eta. Berak aita galtzearen irudikatze hutsak bihotza puskatan ezartzen zion, baina Danièleri pentsatzen zuelarik, ordea, lasaitasuna zen nagusitzen zitzaion sentipena.

Eguberri

Bigarren Eguberriak Mezosen. Opariek ez zuten etxeko giroa alaitzea lortzen, Jose-Manuelek ahalegin guztiak egin arren. Anak ez zuen zehazki gogoratzen noiztik bilakatu ziren tristeak Gabonak, baina atsekabea amarengan nabarmen sumatzen zuen. Eta ezin zion aldaketa Landetara etorri izanari leporatu, aurretik eman zela baitzekien. Hau da, amak ninia galdu zuenetik, hain justu. Gaia ez zen etxean aipatzen, baina Pilarri aldartea goibeltzen hasten zitzaion abenduaren erditsutan beti. Beste nonbait izaten zuen gogoia eta etxekoek portaera egoerara egokitzen zuten. Luisek berak ere, su-etena errespetatzen zuen egun haietan, bihurrikeriarik asmatu gabe egonez.

Ninia sortu eta ordu gutxira zendu zen. Ana oroitzen zen nola galdetu zion amari lepotik zintzilik beti zeraman urrezko medaila txikia nork eskaini zion. Pilarrek, orduan, alaba altzoan hartu zuen eta adierazi zion Luis sortu baino lehen beste alaba bat ukan zutela, sortzean hil zela eta haren oroitzapenez zeramala medailatxoa. Azalpena bukatu orduko, Ana lurrean utzi zuen berriz eta ez zion beste galderarik egiteko paradarik eman. Ez zen gehiago inoiz aipatu hildako umea. Neska zela bazekiten hurrek. Besterik ezer ez. Bizitzaren ibaiak bere joaira berriz hartu zuen.

Eta Eguberri guztiz, mahaira gonbidatzen zen hildako alabatxoaren mamua, eta Anak irudikatzen zuen nolakoa izanen zen.

Izena ere eman zion: Kandida, aitaren amaren izena. Amama hura ez zuen ezagutu, oso gaztetan hil baitzen, eta izen egokia iruditzen zitzaion hildako sortu berriarentzat. Berak Kandi deitzen zuen, irudikatzen zuelarik. Bada, Kandik hamalau urte beteko zituen abenduan. Neskatila polita izango zen Kandi. Begi berdeak jartzen zizkion Anak, Amaiarenak bezalako begi berde ederrak, ile luze eta horailaz apaintzen zuen, xerlo kizkurak kopetan behera dantzan ezartzen zizkion, eta kokots-ziloa gehitzen zion, aitarena bezalakoa.

Eguberri hartan, marrazki bat egin zuen Kandirentzat, eta ohe azpiko kutxan gorde zuen, bere altxor txikien ondoan.

Opariak eskuratzen zituzten Gabonetan beti. Gauza guti bazen ere, beti zerbait. Gehienetan jantziak, eta urte hartan jostailu bana ere bai: Luisentzat kanabera dotorea, azken garaian arrantzarako zaletasuna piztu zitzaion eta; Anarentzat idazluma berria eta paper loreduna, eta Amaiarentzat panpinatxoa. Honen bizi esperantza ez zen luzea izango, zorigaitzez, Luisek begiak nola itxi eta irekitzen zituen ulertzeko,

anestesia gabeko ebakuntza jasanarazi baitzion aste bete gabe.

Zorte bera izan zuten etxeko metalezko iratzargailuek, Luisek, lata irekigailuaz zabaldu ondoren, tripak aterata utzi zituelarik.

Kanaberaren baitan itxaropena ezarri zuten gurasoek, mutikoak arrantzan segituko zuen bitartean, bederen, etxeko mekanismoek luzapena lortuko zutelakoan.

Zizareek, ordea, bazuten kezkatzeko arrazoirik, arrantzale gaztea errepira lohitsuak arakatzeari buru-belarri lotu zenez gero. Harrotasun handirekin ekartzen zuen noiznahi harrapakin baliosa etxera, baldea beterik. Esku beltzak Anaren aurpegiaren aurrean astintzen zituen; arreba nazkarazi nahian, zizareetan lodiena hautatuz, ahoa ireki eta irenstearen itxurak egiten zituen, ama oihuka hurbiltzen zitzaion arte:

‘Nazkagarrixa, jun zaitxez garbitzera ointxe bertan!’

Ustekabeko oparia ere izan zen negu hartan Mezos-en: elurra. Luis izan zen ohartzen lehena, igandea zenez, etxekoak oraindik ere atera gabe zeudela irten baitzen mutikoa arrantzara.

‘Aiba, edurra ai du!’, oihukatu zuen etxeko atea zabal-zabala irekitzean.

Inoiz ikusi gabea zuten hurrek elurra, eta berehala atera ziren atarira malutekin jostatzera. Amaiari mototsak punpuila zuriz estali zitzaizkion berehala, eta barrez ari zen, eskutxoetan elur lumak hartu bezain laster desagertzen zirela ikusiz. Ana eta Luis ere harrituta zeuden paisaia nola aldatzen zen ohartuz.

Amak ordea ez zituen luzaz kanpoan egoten utzi.

‘Sartu etxera gaixotu baino lehen, Jangoikuaren izenian! Ze da hau halakua!’

Emakumeak oroitzapen txarrak zituen elurrarekin. Hamabi urterekin, gerra denboran, Mendarotik Lasturrera joan behar izaten baitzuen oinez, hango hiru baserriako mutilei irakurri eta idazten irakastera, hauek soldaduskarako prestatzeko. Launa hilabete igarotzen zituen Ansorregin, Ugarte Berrin eta Usarroenen.

Astea hantxe pasatzen zuen, goizez maistra lanak egiten, mutilak lanera irten baino lehen; gero, artaldeak zaintzen, gari lanetan edota jezten aritzen zen janari truke.

Asteburuan herrira jausten zen, zakua bete arto, arrautza eta barazki zeramala. Eta bidea elurpean egitea egokitzen zitzaiolarik, nekeza eta beldurgarria izaten zen, xendrak elurretan ezkututzen zirelarik, norabidea galtzeko arriskutan gertatu baitzen behin baino gehiagotan, lainoak elurrarekin bat egiten zuenean.

Elurrak, ondorioz, lilura guti sortzen zion Pilarri.

‘Edurrak ankia lotzen dau!’

‘Mendian elurra-elurra, artzaien txapela makurra!’, erantzun zion senarrak, semeak jaurti elur pilota gutitarik saihestuz.

‘Ta beheko suan egurra!’, gehitu zuen Luisek, harro-harro, bertsoa osatu zuelakoan.

‘Atia itxi ta barrura!’ Pilarrek; azken hitza lortu zuen, etxeokak ahoa bete hortz utziz.

Leihoko berinetan itsatsi zituzten neba-arrebek sudur gorrituak eta laster sortu zen lurrunean marrazkiak egin zituzten. Anak eriaz Kandi izena idatzi orduko ezabatu zuen, elurrak kanpoan haurrek egin berri zituzten oinatzak ezabatu zituen bezala.

Kandi

Gau hotza izan zen hura. Anari ohea berotzea kostatu zitzaion, ur beroz beteriko botila izanagatik; eta azkenean, loak hartu zuelarik, amets-bidaiak leku eguzkitsu batera eraman zuen. Ingurunea ezezaguna zitzaion haurrari: hiri handia zen hura, etxe zuri eta teilatu zapalez osatutakoa. Ibaia ere bazuen, ibai zabal eta dotorea, zubi zoragarri batek zeharkatzen zuena. Ez zen harrizko zubi arrunta, ez eta ere liburuetan ikusi izan zuen erromatar garaiko zubia, ez, zubi hura koloretsua zen, azulejo alaienez apaindua, aingeruz, hegatziz eta lore urdin eta horiz. Baina ez zuen izan gogoetatzeko asti handirik, ez, ohartzerako abiadura bizkorra harrapatu eta eliza erraldoitzat hartu zuen eraikin gotorra gainez gain iragan baitzuen Irungo Juncal elizarekin konparatzeko aizina doi-doi izanik.

Lorategi dotore baten gaindi pasatzean laranja eta limoi usainaz gozatu zuen, sudur ziloak zabal-zabal irekita. Eguzkiaren izpi beroak ere hezur muinetaraino sarrarazi zituen, goxotasun uhina gorputz atal guztietara bideratuz. Hura plazera, hura!

Mezoseko elurtetik ateratzea paradisua iruditu zitzaion. Dena zen eder, bero, koloretsu eta garden. Eta begiak irudiz betetzen ari zituela, hara non ikusi zuen zurezko aulkitxo batean eserita, berehala ezagutu zuen hainbat aldiz irudikatutako Kandi.

Ondora joan zitzaion, baina ustezko ahizpa ez zen ohartu, ez zezakeen ikus. Saiatu zen, bai, Ana, neskaren belarrira hitz goxoak xuxurlatzen, haren ile horaila ferekatzen, alferrik baina. Begi berde ederrek ez zuten Ana ikusten, aulki gainean zegoen andrea zuten begi berdeek begiratzen, haren hitzak zituen neskak aditzen, harekin zuen hitz egiten. Zergatik aztertu gabe, Anak emakume hura berehala gorrotatu zuen. Eta Kandiri, ‘Sí, mamá’, erantzuten entzun zionean, lur jota gelditu zen.

Nola zitekeen Kandik, bere Kandik, arrotz hura amatzat edukitzea?

Ez baitzuen duda-mударik, neskatila hura Kandi zen, odola mintzo zitzaion, ahizpa zuen, berea zuen, etxeokoa, beren etxeokoa. Etxekoen zantzu guztiak zituen: Anak bezalako ile horaila, aitaren begi berde zabalak eta kokots-zulo berbera. Eskuak ere berdinak zituen eta eskuek ez dute tronpatzen! Kandi zelako frogak bat bestearen ondotik heldu zitzaizkion neskaxari, eta ‘Sí, mamá’ entzutea onartezina zuen.

Amaordeari zuzendu zion begirada Anak.

Hau irribarretsu zegoen; dotoreziak eta diruak ematen duen segurtamena agerian zeraman, perlazko koilare eta urrezko eraztunekin batera. Ile apaindegiko orrazkera txukuna zuen, baina ahalegin guztiek ez zuten lortzen funtsezko arrunkeria estaltzea. Kandiren liraintasunarekin ezer ikusteko ez zuen emazte zaparrotea zen: Kandiren argazkiaren negatiboa.

Gaztelera ari zirela ohartu zen bat-batean Ana, eta elkarriketari jarri zion arreta. Ongi ulertzen zuen gaztelera neskak. Izan ere, Irunen eskolan euskaraz mintzatzerik ez zegoen, eta, Landetan zeudenetik,

etxera zetozen etorkinekin praktikatzeko aukera ukan zuen.

‘Quiere un bollo, cariño?’, atsoak.

‘No, gracia, mamá, no tengo hambre’, Kandik.

Hara, goserik ez duela erran du: froga bat gehiago!

Hitz egiteko doinua ezaguna zuen Anak: Lucas andaluzak horrelaxe ahoskatzen zuen, hitzen bukaerako s-ak ahantzita eta zetak euskaraz bezala esanez. Andaluzian ote zegoen, beraz?

‘Bueno, Mila, vamo ya pa casa! Que pronto llega papi’.

Mila? Zer zen izen hura? Mila, Milagros, Mirari izena eman zion bere ahizpari atso tzar hark.

Anak ez zuen etsitzen. ‘Kandi du izena!’ oihukatu nahi zien, ‘Kandi, amama Kandidaren omenez!’

Ama-alabek ez zioten, ordea, kasurik egiten. Beraien artean segitzen zuten, Anaren erreguen jakingabeen. Aulkia utzi eta abiatu ziren biak, eta Ana atzetik joan zitzaien.

Pare bat kale igaro eta iritsi ziren Kandiren etxera. Harri landuzko aitzina zuen, armarri eta guzti. Sarrerako atea ikaragarria iruditu zitzaion Anari: zurezko ate beltza burdinazko iltzeek apaintzen zuten, erdi aroko ukitua emanez. Atea zeharkatzean, Anaren baitan hitz bat durundatzen hasi zen, gero eta ozenkiago, behin eta berriro, buru hezurra osoki bete zion arte. Gezurra. Gezurra. Gezurra zerion etxe hartako horma orori. Urteetan elikaturiko engainua indartsu hazi zen, gizendu, hanpatu, gelak bat bestearen ondotik hartu arte, mutxi usaina zabaltzen den bezala. Atzipe gustu karmina zen han nagusi.

Jangelaren horma zabala osorik hartzen zuela, margolan espantagarria zegoen: Franco diktadore okaztagarriaren erretratua. Gizon txiki biboteduna harro-harro ageri zen, baina margolari milikariak itxura duina eman nahi izan zion arren, ez zuen lortu botereak eskakeriari ematen dion ankerkeria estaltzea. Gezurra hura ere. Etsaien etxea zen hura, eta Kandi bertan nolatan aurkitzen zen ulertezina zitzaion Anari.

Beste ezer pentsatu gabe, zurrunbilo ilun batek hartu zuen neskatxa eta erdiguneraino irentsi, hantxe itzulika ikusi zituelarik ge- zu- rra silabak dantzan, eta horren guztiaren gainetik litania obsesiboaren kantua, gezurra, gezurra, gezurra... Iratzarri zelarik, Ana izerditan blai zegoen, eta beste askotan ez bezala, amets-bidaiaren oroitzapen garbia atxiki zuen.

Madame Monge

Madame Monge hirurogei bat urteko Mezoseko elizaren ondoko etxe atsegin batean bizi zen alarguntsa zen. Bizitzak seme-alabarik eman ez zionez, eskasia herriko haurrei goxokiak banatuz konpentsatzen zuen. Beti zuen bakoitzarentzat hitz eztiren bat eta haurrak, nola ez, hurbiltzen zitzaizkion kontu kontari; hori bai, beren jokoan ibilbidean topatzen zutelarik zioten kasu egiten, baina ez ziren bestela emazteaz anitz arduratzen, harenganako interesa goxokia irentsi bitartekoa izaki. Haurtzaroaren axolagabekeriak laster ahantzarazten zien andrearen irriño polita.

Herriko haurren artean, Monge andereak laster hauteman zuen Ana, eta neskatila isila bereganatzea lortu zuen aise. Aste guti barru, etxera gonbidatzen zuen krakadarako, eta berak eginiko udare zuku berezia dastarazten zion. Bien artean lotura polita sortu zen. Andereak aipatzen zion nola bera ere beste herri batetik etorria zen, Markesa uhartetatik, hain zuzen. Senarra landestarra zuen, baina administrazioarentzat lan egitera Ozeaniako uhartedian izendatua izan zen. Bertan hogeita bi urte iragan zuen bikoteak, gizona zendu zen arte. Horrela itzuli zen Monge anderea senar zenaren herrira, zailegi baitzitzaion uhartean elkarrekin eraiki zituzten oroitzapenei bakarrik aurre egitea. Baina bihotza han utzi zuen, bai, Nuku Hiva uhartean, eta Anari hango edertasuna biziartzten zion. Asteroko hitzorduetan, anitz ikasi zuen neskatxak andre jakintsuarengandik. Markesa uharteak Alvaro de Mendaña espainiarrak deskubritu zituela, esate baterako.

Horretan ukan zuten lehendabiziko eztabaida bi lagunek. Ana ohituta zegoen etxean, aitarekin, hitz bakoitza neurtzen. Jose-Manueli ez zitzaion ezer eskapatzen, hala nola, amak seme alabei mahaia jasotzeko agintzen zien aldiro, gizonak:

‘Noraino ba?’ galdetzen zuen beti, mahaia bi eskuz altxatzearena eginez.

Eta, orduan, Markesa uharteak Alvaro de Mendaña espainiarrak deskubritu zituela entzutearekin, Anak emazteari erran zion euskalduna izan behar zuela, deituragatik, eta ez espainiarra; andereak interesarekin jaso zituen haurraren oharra. Euskarari buruz ere jakin-mina agertzen zuen eta Anarentzat horrek jendearen balioa emendatzen zuen zeharo. Bigarren arazoa deskubritu aditzarekin zeukan neskatilak. Ez al ziren bada lehenagotik ere uharte horiek hor, esploratzaile delakoak agertu aitzin? Deskubritu hitza ez zen beraz egokia, ez zen zuzena, ez zen egia! Zer esango lukete espainiarrek, beste planeta batetik etorritako batzuek haien lurra zapaldu eta deskubritu dutela aldarrikatuko balute? Eta lurraldeari izena aldatuko baliote, zer?

Andreari asko gustatu zitzaion neskatxa meharraren sugarra, dialektikarako gaitasuna gutitan ikusi baitzuen bederatzi urteko haur batengan. Eta haren sentikortasuna ulerturik, gogotik azaltzen zion Markesetan bizirik zirauen hizkuntza, bertako kultura, gudurako errituetan oinarritutako gizonezkoen tatuaiak ederrak, eta etxean apaingarri gisa zeuzkan tapa dotoreak nola eginak izan ziren, nork eskaini zion bakoitza, eta Eo enana, hau da, haien hizkuntzaren izena ikasi zuen Anak; Eo enana-k gizakien hizkuntza erran nahi zuela.

Madame Monge eta Anaren artean harreman berezia sortu zen eta azkartuz joan zen egunetik egunera. Lehen aldiko, neskatxak bazuen bere barneko sentipenak norekin banatu eta, emeki-emeki, pentsatu zuen, inorekin aipatzekotan, Madame Mongekin aipa zezakeela amets-bidaiena, nonbait intuitzen baitzuen halako kontu bitxi bezain sinesgaitza entzuteko gai izanen zela. Usna hura emakumeak kontaturiko kondaira misteriotsuetan finkatua zuen haurrak. Magia eta errituetan sinesten zuen; herria begirunez hartzen zuen andrea amets-bidaiena sinesteko ere gai izan zitekeela ziur zen.

Arratsalde batez, andereak eman zion sekretua salatzeke aukera. Tau'ak, hau, da Markesetako aztiak aipatzen hasi zitzaion:

‘Tau'ak’, erran zion marrazki bat erakutsiaz, ‘azti boteretsuak dira Nuku Hivan. Hauek dute lotura egiten gure mundua eta hildakoenaren artean. Eta hori, botere magikoak erabiliz dute egiten’.

Ana adi-adi, ezer galdu nahi ez zuela, irudiko gizon tatuatu duinari begira.

‘Eta badakizu, Ana? Emakumeak ere izan daitezke botere horren jabe, txikitatik hasten dira iragarpenak egiten, gertakariak aurrez ikusten, edo amesten, eta urtetik urtera, hildakoekin komunikatzen hasten dira...’

Isilunea markatu zuen andreak, suspensea atxiki nahian.

‘Eta nola lortzen dute hori?’ neskatzak.

Monge andreak bekain margotuak altxatu zituen, eta hatsa sakonki hartu ondoren segitu zuen:

‘Trantzeen bidez dute hori lortzen.’

Eta azaldu zuen, Tau'ak trantzean sartzeko dantzan ari zirela, erritmo errepikakor obsesiboek poliki-poliki egoera berezia sortzen zutela haiengan, edabe misteriotsuak zirela tarteko, eta halako batean, beste munduko atea irekiko balitzaizkie bezala, bidaiatzen hasten zirela, hildakoen mezuak jaso bitartean.

Mezua herritarrei zabaldu ondoren bukatzen zen trantzea, eta lotan geratzen ziren aztiak.

‘Niri ere antzekoa gertatzen zait batzuetan.’

Esaldia nahigabe askatu zuen Anak. Eta askatzearekin batera, arinago sentitu zen, baina beldurtuta ere, madame Mongek sinetsiko zuenez jakin gabe. Alarguna hitzik gabe gelditu zen une batez. Zer pentsatu ez zekiela, errepikarazi zion neskatilari.

‘Niri ere batzuetan antzekoa gertatzen zaidala.’

Errateko doinu lasaiak haurra benetan ari zela ulertarazi zion helduari. Begirada gardenak ziurtasunari indar eman zion.

‘Konta iezadazu.’

Emakumeak pasahitza asmatu zuen, Anari konta zezan galdetzearekin, sinesten zuela aditzera eman baitzuen. Orduan, hilabeteetan atxikia izan zen hitz uholdea turrustan isuri zen, neskabila horailak nazaren ur-atea altxatu izan balu bezala, eta hats batez kontatu zituen gogoan hartu zituen amets-bidaiak, azken tantaraino.

Monge andreak arreta handiz entzun zuen, beti entzuten zuen arretaz, baina orduan arreta handiagoz oraino. Ez zekien neskarengatik kezkatu behar zuen edo haren irudimenagatik poztu; eta Markesetako ipuin haiek guztiak kontatu izanak haurrarengan nahasmendua eragin ez ote zuen galdetu zion bere buruari.

‘Zu ezagutu aurretik hasi zitzaizkidan amets-bidaiak.’

Anak, emakumearen zalantzak irakurri izan balitu bezala, idorki bota zion esaldia. Zaila zen, bai, engainatzea. Alarguna eztiki hurbildu zitzaion eta eskua sorbalda gainean ezarri zion, bakezko keinu gisa. Gehien kezkatzen zuena azken kontakizuna zen, Kandi, ustezko ahizparena, hain zuzen. Harrigarria zen haurrak bizitokiaz, klimaz, fruitu usainez ematen zituen xehetasun haien guztien berri ukan zezan. Ez zuen uste asmatu zuenik, asmatu ez, orduan... eta begirada gris hura nola jasan, ongi asko ohartzen zen andrea haurrak beregan ezarritako konfiantzaren balioaz, ez zion huts egin nahi.

Ezer gehitu gabe, egongelako liburutegirantz itzuli zen, eta apalategi zabalean, Andalosie, terre de contrastes larru berdez eginiko azala zuen liburu dotorea atera eta Anaren ondoan eseri zen besaulkian. "Séville et ses monuments" orria bilatu eta ireki zuen, Anaren aldera erakutsiz.

Honi bihotza gelditzen zitzaiola iruditu zitzaion. Hitzik ahoskatu ezinean, hatz erakuslea luzatu zuen Torre del oro dorreantzat, eta gero la Giralda ere ukitu zuen, Alcazarren ondoko harresiak hurrena, katedral erraldoia, eta ibaiaren izena irakurri zuen ahapetik: Guadalquivir. Eta zubia, zubi apaindua ere ezagutu zuen bertan. Hantxe zeuden, hantxe, argazki ederretan, berak hain zehazki ikusi, ukitu eta sentitu zituen lekuak. Sevilla zen, hortaz, Kandi bahituta zegoen herria!

Monge alargunari buruz zuzendu zituen begi gris malkotuek eskerrak ematen zizkioten andereari, enigmaren giltzari izateagatik.

'Ikusten egia dela', ziotsoten.

Monge anderea zer pentsatu ez zekiela zegoen. Nola adieraziko zion bada bere buruaz hain ziur zegoen haurrari amets-bidaia irudimen aberatsaren ondorioak baino ez zirela. Egia, gauza zombait harrigarriak ziren, baina ametsa amets da, eta ez zuen nahi neskatilarengan nahasmendua sortzerik. Eta begi gris haien ziztada ...

'Begira Ana, kontatu dizudan bezala, pertsona batzuek badituzte, bai, ahal bereziak, nik hori ikusia dut hainbat aldiz. Eta badirudi zuhaurrek gaitasun bitxiak dituzula, hori dudarik gabe. Baina kasu, Ana, horrek ez du erran nahi amets-bidaietan ikusten duzun guztia errealitate denik; ametsen lana errealitatea eraldatzea baita hain zuzen. Mezu gordeak dira zure ametsa, eta bertan errealitatea mozorrotuta zaizu agertzen, izan lekuak zein pertsonak. Zuk ahizpatzat duzun neskatxa hori ez da beharbada zure ahizpa, amets horiek beste mezuren bat bidali nahi dizute. Ulertzen al duzu?'

Isilune luzea. Anaren baitan etsipena nagusi. Ametsa zer zen bazekien. Ametsak egin egiten zituen noiznahi, onak zein txarrak, eta esnatzean ongi bereizten zituen ametsa izan zena eta mundu errealia. Ametsa gauza bat zen, eta amets-bidaia beste zerbait.

'Nireak ez dira ametsak, zuk duzu ez ulertzen, bota zuen azkenean, besaulkitik altxatzearekin batera. Etxera joan behar dut. Agur.'

Eta atearekin betan itxi zuen Anak elkarrizketa, baita bien arteko historiaren liburua ere; ez zen gehiago itzuli Monge anderearen etxera, eta kalean gurutzatzen zuelarik, agurtzen zuen, baina besterik gabe, mintzatzen hasteko paradarik eman gabe. Bukatutzat eman zuen harremana, konfiantzaren mugak zeintzuk ziren konturatu bezain laster. Horrelakoa zen Ana: osoa. Dena ala ezer ez.

Udalekura

Ondoko hilabeteetan, haurrak ez zuen amets bidaiarik egin. Bizitza arruntean murgildu zen buru-belarri, eskolan ikasle bikaina izanez, eta etxean goserik gabeko alaba. Luisek hamahiru urte bete zituelarik, mekanikarako zuen gaitasunak ikusirik batetik, eta eskolarako zaletasun eza bestetik, lanbide-ikastetxe batean hasi zen; aste osorako joaten zen bertara. Amaia eskolaurrean hasi berria zen, eta gustura joaten zen.

Anak eguneroko ekintzetan jartzen zuen gogoia, monotonia hartan sartzeak tristura ahantzaraziko ziolakoan. Ustekabean alta, postariak ekarri zion udaberriko eguerdi batez alaitzeko arrazoia. Gutuna Anaren izenean zetorren, eta idazkera berehala ezagutu zuen neskatxak. Danièleren letra txiki eta tinkatua zen. Lagunak bere berri ematen zion, ama eta biak ongi zeudela; aita zendu zenetik ama lanean hasi zela erizain gisa Akizeko klinikan; eta eskola berrian lagunak egin zituela. Asko oroitzen zela Anaz, eta elkarri idazten segi zezaten proposatzen zion, harremana mantentzeko gisan. Bestalde, gomita berezia luzatzen zion udako oporretarako: Mousteyko udalekura elkarrekin joan zitezen, lau egun kanpamentu batean Anarekin igarotzea amesten baitzuen Danièlek.

Anak eskutitza utzi eta erantzuna idazteari ekin zion. Ideia bikaina iruditzen zitzaion noski udalekuarena, baina diru aldetik ez zekien egingarri izango zitzaionez, gurasoekin aipatuko zuela eta jakin bezain laster idatziko ziola. Eskolako lagunak bere ere ematen zion, Madame Barisi zangoko zain-odoluria kendu ziotela ere gehituz: adieu les varices de madame Baris!

Udara bitarteko hilabeteetan, asteroko idatzizko hitzordua atxiki zuten bi lagunek. Anak gurasoekin aipatu eta diru laguntzak eskuratzeko urratsak eman ondoren, udalekurako prestatu zen. Lau egun etxetik kanpo pasatzeak zirrara berezia sortzen zion. Abentura gustua hartzen zion egonaldinari, eta abiatzeko egunean autobusa iritsi zelarik, pozik utzi zituen gibelean Mezos eta bere goibeldura.

Moustey herri txikia zen, Mezosen antzekoa, baina inguruko oihana egiazkoa zuen, zuhaitz desberdinez osatua, eta pinurik gabekoa! Hortaz ohartu zen berehala Ana. Ongi hasten zen afera. Beste berezitasun batek atentzioa eman zion neskatilari, herriko plazan bi eliza zeuzkala herriak, aurrez aurre. Burutik pasatu zitzaion astero bi meza jasan behar ote zuen bertako jendeak, eta irudikatu zituen bi apez tripandi, nor bere elizaren ate aitzinean, giristinoei deiadarka, elizarik onena berea zela aldarrikatuz, ostiarik goxoenak zituela batek, ardotik ere ematen zuela bigarrenak, sartzeko, sartzeko, mirari bila bertara! Ipuina ez zuen, haatik, askoz gehiago garatu ahal izan, autobusa oihal-etxolaz inguratutako kanpalekuan gelditu baitzen. Jaitsi orduko, inguruetara begira jarri zen Ana, Danièleren bila, baita laster ezagutu ere haurren artetik lagunaren ile kizkur iluna. Danièle lasterka etorri zitzaion, besarkatzera.

Hura poza, hura! Bi neskatxak elkarri begira zeuden, elkarri ukituz, adin horretan hilabete batzuk aski izaten baitira gorputzean aldatze nabarmenak gertatzeko. Danièle zeharo eraldatua atzeman zuen Anak: luzatu zen, mehatu, gerria findu zitzaion eta titiak hazi, emaztetxo itxura hartu zuen. Airerik gabe egoniko puxika bati pentsarazten zion Anari, bat-batean askatasunak arnasez bete eta puztu izan balu bezala. Ana berriz luzatu eta luzatu bai, baina emakumeen zantzurik ez zuen garatu. Baina gehien harritzen zuena ez zen Danièlek eman zuen aldaketa fisikoa, baizik eta haren irribarre zabalak, haren jarrera tenteak, bizipoza berreskuratu zuenaren frogak irakurtzen zituen Anak lagunaren jestu guztietan, zoragarri!

'Aizan, madame Baris irudi dun, e?' Anak lagunaren bularrak haztatuz.

'Ba hi, aldiz, taula bezain leuna hago!' Danièlek zimikoa itzuliz.

Kili-kilika eta pitxikatuz eman zuten bi adiskideek bilgunerantz zeraman bidea. Han, begiraleek beren burua aurkeztu zieten haurrei, egonaldiaren arau parrasta zerrendatu zuten doinu alegera hartuz, ongietorri alaia emanez debekuen herrira.

Haizu ez zuten guztia afixa handietan argi utzi ondoren, jarduerak aipatu zituzten eta, hor ere, betebeharretatik hasi ziren: garbiketa txandak, mahaia ezartzeko txandak, harrikoa egiteko txandak eta oihan inguruko zabor biltze txandak. Azkenean, denek ongi pasatuko zutela aisialdi jolasgarri bezain hezitzailean azpimarratu zuten. Bi lagunei berdin zitzaien eginkizunen kopurua, baldin eta elkarrekin egiteko baimena ematen bazieten, eta oihal-denda berean lo egingen zutela ziurtatu zutelarik, zoriontsu izan ziren.

Lau egun zoragarri igaro zituzten neskek kanpamenduan. Orotara berrogeita hamar bat neska ziren egonaldi hartan, eta hamarnaka banatuak ziren oihal-etxoletan. Lehendabiziko ardura taldeari izena asmatzea izan zuten haurrek. Berehala nabaritu zen gidaritza hartzeko irrika zutenak zeintzuk ziren. Danièle eta Anaren taldean Cathy izeneko ilegorriak zuen aitzina hartu, ahots sendoaz beste guztiak isilarazten zituela. Presentzia handikoa zen neska, bazuen larderia, eta bere tokia ez zion inork aise ukatuko. Hortaz, borobiletik zutitu eta les gazelles! bota zuelarik, denek aho batez onartu zioten proposamena, eta gazela guztiak lotu ziren beren puskak oihal-etxean sartzeari, lo zakuak zabaltzeko Cathyk berea ezar zezan igurikatu ondoren, noski. Afaltzeko ordua iritsi zen berehala eta oheratzea berantesten zuten neskek. Azkenean, hantxe, lo zaku birekin bat eginez, elkarren ondoan etzan ziren Ana eta Danièle, eta begiralearen linternaren izpi-azaoak tarteka geldiarazi bitartean ari izan ziren kontu-kontari, xuxurlatzen eta irriz, Cathyk lo egiteko garaia iritsi zela erabaki zuen arte. Gazelen etxea mututu zen tupustean eta hamar hats hartzeen artean bik erritmo berbera hartu zuten, ametsetan ere elkarri loturik.

Goizeko argi-hastea oihal-dendaren josturetatik keinuka hasi zelarik, neskatalak hasi ziren emeki-emeki iratzartzen, eta banan-banan dutxako bidea hartzen. Ana eta Danièle azken momentua arte egon ziren etzanik, bereizteko unea egin ahala gibelatu nahian.

Bigarren egunean, ibilaldia eta pista jokoak ziren menuan. Izugarritzko beroa egiten zuen, eta ibilalditik landa errekan geldituko zirela jakin zutelarik, besta izan zuten haurrek. Bi errekek zuten Mousteyen hitzordu: Leyre handiak eta Leyre txikiak, freskatzeko aukera polita eskainiz. Hunkigarria izan zen bi lagunentzat elkarrekin bainatzea, lehendabiziko aldiko. Mezosen ez bezala, Danièle, bainu jantzi loreduna ezarri eta, jauzi ziprizzintzailea emanez, uretan zegoen, lagunaren artean gozatzeko, Ana keinu batez festara gomitatuz. Ur gardenak larru iluna dirdirarazten zion eta oraindik agerian zituen orbanak laztantzen. Momentu alaia partekatu zuten bertan bi adiskideek, elkarri ura jaurtikiz, Cathyk antolaturiko zirkuitu jolasgarriak eginez, murgildu, haurrek zangoak irekita osaturiko tuneletik igaro eta ur azpiko altxor bila. Giro bikaina zuten, bai, gazelek beraien artean, baita beste taldekoekin ere. Pista jokoan ez zuten, haatik, irabazi, Printzesek baizik, baina gozokiak denen artean banatuak izan ziren.

Egunak zirurikan pasatzen ziren eta azkeneko gaua iritsi zen. Anak gau hura berezia izan zedin nahi zuen; eta, Cathyren laguntzarekin, sorpresa prestatu zion Danièleri, izar zuritara lo egingen zutela biek. Horrela,

beraz, begiraleak azken erronda egin eta atera ziren bi lagunak oihal-etxolatik, zakuak eta burkoak harturik eta kanpamendutik urrundu. Anak arratsaldean begiztatu zuen ametz ederraren ondoan prestatu zuten ohea. Gau izartu eta beroa izan zen eta isiltasun hartan bildurik egon ziren bi haurrak, ilargia gogaide zutela. Hitzik gabeko loturak batzen zituen biak eta, erran gabe, jakin bazekiten unea bururaino dastatu beharra zegoela, hilkortasuna barnetik bizi izanagatik. Iheskorrak ziren zorioneko momentuak, hatzen artetik doan area bezain itzurtiak; ez zuten, hortaz, galtzera utzi nahi eskainia zitzaizen aukera paregabea. Lorik gabeko gau liluragarria igaro zuten eta goiztirian oihal-dendara itzuli ziren, isiltasunean, gazelen artera etzatera.

Biharamuneko agurrak ahal bezain labur egin zituzten Anak eta Danièlek. Bakoitza bere autobusera igo zen elkarri idatziko ziotela agindu ondoren. Hitza bete zuten bai, bi adiskideek ondoko hilabeteetan, baina oharkabean, eskutitzak bakanduz joan ziren, arrunt desagertu arte. Danièle amarekin Bordelera bizitzera joan zenetik, ez zuen Anak haren berririk gehiago ukan; Anak bere bizitzan segitu zuen, nola hala, Mezoseko Jendarmeria grisean herrestan zihoan denbora biketsuan.

Koruan

Egunerokotasunean zentratzen saiatzen zen arren, ez zuen aise lortzen bizimodu haren tristezia ahanzte, eta abestiek zuten horretara laguntzen. Musika sendagai zitzaion eta, egunero, kantuz aritzen zen, amarekin edo bere baitatik. Pilarrek askotan aipatzen zuen kanturako zuen dohaina, nola abesten zuen Mendaroko elizan, solista gisa Ave Maria de Schubert; zaletasuna aitzak transmititu ziola, oso gogoko baitzuen Toribiok (a ze izena!) kantatzea, eta aita-alabak maiz ari zirela elkarrekin kantuz.

Horrela ikasi zuen Anak kantu ugari, hala nola Doce cascabeles, eta Gabonetako villancico-ak. Orduan, eskolan, ostegun arratsaldetan maîtrise deituriko haur korua sortu nahi izan zutenean, Anak izena eman zuen zalantzarik gabe.

Beti oroituko zen koruko lehendabiziko klaseaz. Betiko ikasgelaren ondoan, bazen beste gela handikote bat, non dotrinako ikasgaiak ematera heldu baitzen herriko apeza astero, eta astero karia horretara igeltsu berria estreinatzen zuen zuzendari serorak, erretoreari ongi etorria emateko edo:

‘Une craie neuve pour monsieur le Curé!’ agintzen zuen, ezinegonagatik ahotza zorrotz bilakatzen zitzaiola. Ikasleek apez tripandia eta serora potoloaren arteko maitasuna irudika zezaten ez zen bada harrizkeoa, atsoak jarrera zeharo aldatu ohi baitzuen asteazken goizetan.

Beste egunetan ez bezala, hainbat urtean bridatuta egondako emetasuna astean behin agertzera eman baitzezakeen. Usaiko militar ibilera zurruna bat-batean dantzatua bilakatzen zen, aldakak dantzan hasten zitzaizkion gizonari atea zabaltzera zihoalarik, eta eskutik eskura ematean klarion luze eta gogorra ferekatzen zuelarik, nabarmen geratzen zitzaion sortutako plazer kilika...

Gela hartan bertan iraganen ziren hortaz kantu saioak.

Irakaslea iritsi zelarik, sorpresa hartu zuten haurrek, ez baitzuten aurretik ezagutzen. Mademoiselle Augustine berrogei bat urteko emakume beltzarana zen. Irribarretsu agertzen zen beti, baina irribarrea aurpegian josita zeraman, izoztua bezala. Lehen begiratuan ohartu zen Ana irakaslearen berezitasunaz:

itsua zen. Betaurreko beltzek lokiak estaltzen zizkieten, baina ez zuen makilarik erabiltzen, ez, ez eta txakurrik ere. Hélène izeneko neska zaharrak zuen besotik heldu eta harat honat laguntzen.

Hélènek irakaslea harmonium gibeleraino gidatu zuen, eta bertan esertzen lagundu. Esku fin zuriak teklatu gainean ibiltzen hasi ziren, beren gisara, fereka arinez eremu ezaguna bereganatzeko artean. Burua altxaturik atxikitzen zuen beti, sudur-ziloak zabalik, inguruko aireak garraiatutako informazioa usnatuko balu bezala. Haurrak agurtu zituen, eta bakoitzari zegoen tokitik bere izena erran zezan galdetu zion. Hamabi ziren ikasleak, eta izenak atoa hartu zituen gogoanitsuak. Arauak azaldu zituen, ongi entzuteko eskatu zion neskei, eta entzundakoa errepikatzen.

‘U A E U A E U : un, deux!’

Mademoiselle Augustine mordoiltzeko asmoz, jarlekuak trukatu zituzten, baina alferrik, itsua berehala ohartzen baitzen aldaketaz, eta hori haurrak kantatzen hasi aitzin! Aski zuen hitz erdia aditzea, edota haurren arteko xuxurlarik apalena sumatzea, txantxa bertan indargabetzeko.

‘Ez nauzue engainatuko’, zioen irriz, ‘saia zaitezkete, baina ez duzue, ez, lortuko!’

Harrigarriago zen oraino, emazteak zein garatua zuen usaimena: gelakideen arteko inor txikle edo gozokiren bat marruskatzen ari izanez gero, berehala jartzen zuen sudur-antena martxan eta erratu gabe izendatzen zuen hobenduna.

‘Xingoma zakarrantzira, Michèle!’

Michèle herriko familiarik aberatseneko alaba bakarra zen. Aita ardo tratulari gisa aritzen zen, Bordeleko gaztelu ospetsuekin, eta ama ez zen etxetik kanpo lanean ari. Etxe ikusgarria zuten herrian, errekarri buruz kokatua, jauregi itxurakoa. Alabari nahi zuen guztia eskaintzen zioten gurasoek, berak eskatu baino lehen. Hamar urteko neskatila batek amets zezakeen guztia zeukan Michèlek, hots, jostailu, jantzi, bitxi, edota zernahi edergailu. Etxe hartan dena zen eder, handi eta dotore. Zola estaltzen zuen urre koloreko moketa lodi eta bigunean oinak desagertzen ziren, are berotan bezala, eta pasabidean zehar luzatzen zen tapiza, Michèleren logelaraino. Logela baino bizi-gela izan zitekeen hura, hain zen zabal eta argia. Lo egiteko eremuaz gain, jostalekua zeukan, panpinen etxe eta guzti, baita bulego ederra ere, koloretako arkatz, luma eta pinturaz hornitua. Baina Anaren irudiko, altxorretan preziatuena liburutegia zuen lagunak: logelako horma osoki betetzen zuen zur argiz eginiko apalategi zabalaren aurrean miretsirik egoten zen neska, liburu bilduma osoei so, begiak zurituak zegoela.

Eskolako liburutegiak eskaintzen zuen guztia ikasturte bakarrean irentsi zuen Anak, eta irakur-egaria nola ase bilaka zebilen beti. Orduan, Michèleren logelako horma paradisua zeritzon. Michèlek berak, haatik, ez zion bestelako interesik jartzen irakurketari. Hark dantza zuen maite. Logelako armairuan zintzilik zeukan dantzarako gona, soineko eta mota guztietako tutuen artean bat aukeratu, jantzi eta balleteko klasean ikasitako mugimenduak errepikatzen zituen Anaren aurrean. Honek imitazioz barneratzen zituen, baita desbideratzen ere: belaunak barrurantz sartuz, sorbaldak altxatuz lepogabe gelditu arte, tripa kanpora botaz, dantza komiko-baldarrak bi lagunak irriz lehertzen uzten zituen arte.

Eskuzabala zen Michèle, eta Anari berak nahi bezainbat liburu hartzen uzten zion, etxera eraman eta lasai irakurtzeko gisan. Jendarmeriara joatea ere gustatzen zitzaion neskatxari, eta horrek Ana harritu

zuen hasiera batean. Alabaina, jauregi batean bizi zenak zer interes ote zion etxe zaharkitu batera joateari?

Baina laster ohartu zen Michèlek euskal etorkinen etxean bilatzen zuena bestelako ontasuna zela: giro goxoa, umorea eta etxekotasuna. Izan ere, palazioan bizi arren, oso bakarrik sentitzen zen, aitag astea kanpoan iragaten baitzuen batetik eta, bestetik, ama etxean egonagatik, ez baitzen alabaz materialki baizik arduratzen. Emakumea arraro samarra iruditzen zitzaion Anari, izaera gorabeheratsukoa behinik behin. Egun batetik bestera jarrera arras kontrakoa har zezakeen pertsona zen: gaur dena irri eta kontu, bihar mutu eta ilun. Michèlek azaldu zion ama eri zuela, zainetatik ahul, eta horregatik zela hain aldakorra. Ondorioz, Jendarmeriara joatea aire freskoa arnastea bezalakoa zitzaion haurrari, eta sukalde xume hartan une alaiak pasatzen zituen, euskarazko hitz zenbait ikasiz, kartetan eskoba eta txintxonean arituz Jose-Manuelekin, kantu berriak ikasten Pilarrekin, Amaia eta tirodobliekin jostatuz eta, batez ere, Luisen begi urdin bihurriei begira.

Egia erran, Luis oso mutil ederra baitzen, eta hamalau urtetan metro eta laurogeiak ez zituen urrun, gorputz lerdin eta gihartsua zuen, bizikletaz hainbeste kilometro ibili izanari esker. Eskolatik larunbat eguerditan itzultzen zen, eta nonbaitik ere, hantxe azaltzen zen beti Michèle Jendarmeriara, edozein aitzakiarekin, Anari liburu berria ekartzera, edo aitag emandako ardo botila eskaintzera, ez zuen aukera bat galtzen neskatzak; denek ez jakinarena egiten zuten, ongietorria ematen zioten bisitariari, jartzeko, eta bertan bazkaltzen gelditzeko proposatzen.

Anak mahaian plater bat gehitzen zuen, Luisen ondoan, eta Michèleri plazer handia egitearekin batera, neba amorrarazten zuen. Harri batez bi txori!

Liskarrerako denbora guti izaten zuten, haatik, neba-arrebek, larunbat eguerdiko bazkaria bukatu bezain laster alde egiten baitzuen nerabeak lagunengana, herrian zeukaten garaje batean brikolajearen arituzera, motor zaharrak desmuntatu, piezak eskuratu eta motor berriak eraikitzeke proiektuarekin. Ikasturtea hasi zenetik, mekanikari-gaiak bazituen jada bi eginik eta saldurik, beretzat mobilet ederra muntatzeko asmoz. Erran eta egin. Hilabete guti barru Mezoseko karrika tristeak triste izateaz gain burrunbatsu ere bihurtu baitzituzten mutikoen, ihes hodiak artoski trafikatu ondoren, dezibel-besta zeingehiagoka zaratsua antolatuz.

Michèle gaixoari bihotz zimikoa egiten zitzaion Luisen motor-hotza entzuten zuen bakoitzean.

Azkeneko amets-bidaia

Anak, aldiz, erreka aldera joateko baliatzen zuen, zalaparta hartatik babesteko. Bere zurzuria besarkatu eta azal leunaren kontra malkoak isurtzen utzi, elkarren kontsolagarri, arbolarengan ikusten baitzuen adarrek zeru alderantz ematen zuten ahalegin antzua, erroek lurrari estuegi lotzen zuten zutenez gero, kate lodiak balira bezala; ezintasun berak lotzen zuen haurra bera, kate ikusezinek berea ez zen lur hartan sustraitu nahi baitzuten hura ere, gero eta sakonkiago. Lau urte pasa desterratu zirela eta ez zuen lortzen bertako bizimodura usatzen.

Saiatu zen bada, entseatzeko bada, eta mementoka ongi pasatzera heltzen ere zen, baina ez luzerako. Ez zen inoiz besteak bezalakoa sentitzen eta pentsatzen hasi zen ez ote zen anormala zeharo, batez ere amets-bidaiez oroitzen zelarik. Liburuetan zuen atseden hartzen, edota bere zurzuriarekiko

besarkadetan. Nazkatua zegoen hainbesteko galdera, sufrimendu eta buruhauste ibiltzeaz, eta ez zuen amets-bidaiarik egin nahi gehiago, horrek ez ziola ezer onik ekartzen ohartzen zen eta.

Horrela hasi zen gauaz ahal bezain lo guti egiten, irakurri eta irakurri aritzen zen, edozer irakurtzen zuen, eta loak hartuko zuela konturatu orduko, jaikitzen zen, leihoa ireki, gelara airea sarrarazteko, eta idazteari lotzen zitzaion, leher egin arte, kaieraren gainean lo seko gelditu arte, frogatua baitzuen horrelakoetan amets gabeko lo zakarra egiten zuela.

Zoritxarrez, erritmo horri ezin izan zion luzaz eutsi, eta udaberriko gau batez gertatu zitzaion amets-bidaiarik luzeena. Azkena.

Hurrengo goizean aurkitu zuten ohean konorterik gabe. Pilar eskolarako deitzera etorri zenean, berehala ohartu zen eta orroka hasi. Katalina auzokideak entzun eta suhiltzaileak deitu zituen. Bitartean, Anaren amak alaba astintzen zuen, esnatzeko, esnatzeko, baina gorputz guriak ez zuen erantzunik ematen. Amaia begira-begira ari zen ohe aldamenetik, han gertatzen zenarekin harrিতuta. Katalinak eraman zuen bikiengana.

Ana sabaian zebilen, angelu batetik bestera, beheko gertakariari so. Ohartu, ongi ohartzen zen bere ohean bera zegoela, eta inguruko zalapartaren iturri zela, amaren histeriaz ere jabetzen zen, baina ezin ezer egin. Lasaitu nahiko zituen denak, ez larritzeko esan, ongi zegoela hortxe, amets-bidaiatik ez zela oraindik itzuli, besterik gabe, eta ez zela agian itzuliko, besterik gabe.

Suhiltzaile eta soroslez bete zen bat-batean logela xumea. Erreanimazio ariketak hasi zituzten beheko Anarengan, goiko Anak jestu guztiak interes handiz segitzen zituela. Hodia eztarritik behera nola sartzen zioten harritu zen, edozer irensteko hainbeste lan izaten zuenez, sinesgaitza halako tuio puskarentzat adina leku bazuenik ere!

Globo antzeko bat lotu zioten ondotik tutuari, eta puzten hasi zen gizon bat, erritmo jarraikian, beste bik andetan etzaten zuten bitartean. Ez bat ez bi, anbulantzian zegoen; eta goiko Ana ere bai.

‘Putz, putz, putz’, globoak.

‘txin, txintatxin’, metalezko tresnak

‘burrun-burrun-burrun-burrun’, motorrak

‘piii-pooo-piii’, sirenak.

Bidaia musikala izan zen arras, eta Anari ikasi berri zuen abestia etorri zitzaion gogora:

Je chante !

Je chante soir et matin,

Je chante sur mon chemin

Je chante, je vais de ferme en château

Je chante pour du pain je chante pour de l’eau

Je couche

Sur l’herbe tendre des bois

Les mouches

Ne me piquent pas
Je suis heureux, j'ai tout et j'ai rien
Je suis heureux enfin.

Eta kantuaren melodia anbulantzia-orkestrak laguntzen zuen ezin hobeki.

BIGARREN PARTEA

2012ko agorrilaren 25a, Ziburuko hilerria.

Besotik helduta datoz bi emakumeak. Ama-alabak dirudite. Ama laurogei bat urteko emazte dotorea da, ezkerreko eskuan makila daraman arren, urratsak irmoki ematen ditu hilerriko harri-xehez estalitako bidean gora. Bidea ezaguna baitu. Hantxe, bigarren lerrokadaren eskuineko aldean, azken-aurreko hilobiaren aitzinean gelditzen da. Hilobi xumea, harrizkoa. Marmolik ez zuen nahi. Harria bai, harri larri eta grisekoa nahi zuen hilobia, lauburu handi batek apaintzen duena. Eta lauburuaren azpian, zizelkaturiko hiru lerro.

Ana Arozena (1960- 1970)

Jose-Manuel Arozena (1932-1980)

‘Eta Jainkoak esan zion: zatoz nerekin beste aldera’

Dirdirarik ez, urrezko hizkirik ez, harria, harri grisa, urtetan zehar euriek leundu duten granittoa, haizeek laztandu eta txingorrek azotatu duten harria. Eta parez pare, hantxe patarra beheiti, itsasoa, Zokoko hondartza polita, gotorleku sendoa Kantauriko atearen zaindari duela.

‘Le gustaría mucho a Ana, seguro’.

Adineko emazteari begi urdinak lausotu zaizkio hitzok erraterakoan. Besteak besoa tinkatu dio, amultsuki, eta irriño eztia luzatu.

‘Cuanto hubiera querido conocerla, no imaginas, ama.’

‘Y ella a ti, Mila.’

Milak krabelin sorta utzi du hilarriaren gainean. Jose-Manuelek gehien maite zituen loreak direlako, krabelin gorriak, Itziarren semea kantuan, amak semeari eskaini zizkion bezalakoxeak.

‘Éstas para aita.’

‘Le encantará.’

‘Y éstas para Ana.’

Bitxilore zuriak Anaren argazkiaren ondoan etzan ditu. Erretratuan neskatxa horailak irribarre egiten du, ahoaz baino gehiago begiez da irriz ari, eztiki, begirada xamurra dio ikusleari eskaintzen, lañoki. Milak kristalaren gibeledko aurpegitxoa ferekatzen du, bitxiloreak atondu aurretik eta Pilarrek barneko elkarrizketa buka dezan zain egoten da. Adineko andereak harri latzaren gainean eskua pausatzen du, agurtzeko bezala, abiatzeko seinalea emanez.

Hilerriko irteeran bertan dagoen aulkian eseri dira bi emakumeak. Isiltasunean egon dira. Milak ez du Pilarren besoa askatu. Pilar itsasoari begira dago, azken urteetako gertakariak gogora datozkiola, uhinak hondarretara bezala, bat bestearen ondotik, etengabeko isurtze gazi-gozoan.

Anaren heriotza nola gainditu duen gaur ere ez du ulertzen. Rupture d'anévrisme, ez zen deus egiten ahal. Gertatzen da, gutitan, baina gertatu ohi da haurrengan halakorik. Zaina lehertzen da burmuinean, odol isuria eragiten, eta, zorigaitzez, ez da ezer egiterik. Ez du sufritu.

Ez du sufritu. Berak ere horixe nahi izan du orduan: hil eta gehiago ez sufritu. Gehiegizkoa zen Anarena, gehiegizkoa. Beste alaba galdu zuenean, nahikoa min ukan zuen, pertsona batek jasan dezakeenaren muga hortxe zegoela zeritzon. Eta bigarren aldiko halakorik bizi behar. Fededuna zen Pilar. Fedeak lagundu zuen lehendabiziko dolua eramaten. Baina bigarreanean, fedea galdu egin zuen. Alferrik hurbildu zitzaion apeza kontsolatu nahian, kristo guztiak igorri zituen popatik hartzera eta ez zuen elizkizunik onartu Anarentzat. Jose-Manuelek andrea utzi zuen erabakiak hartzen, bera ez baitzen horretarako gai. Gelditzen zitzaizkion seme-alabez arduratu zen, eta Pilarri haserrea lagungarri zitzaiola oharturik, haren alde jokatu zuen.

Ondorioz, Pilarrek erabaki zuen herri hartatik alde egingo zutela berehala, esketik bizi behar bazuten ere, Euskal Herrira itzuliko zirela, kosta ahala kosta.

Eta aste betean gertatu zen miraria: Jose-Manueli kamioilari lana eskaini zion Ziburun Etcheto bide garraio enpresak, eta lantegiaren parean zegoen etxea proposatu alokatzeko.

Katalinak zeru lurrak harrotu zituen Anaren gorpua Ziburura eraman ahal izateko, traba administratibo guztiak gainditu arte; Pilarrentzat ezin pentsatua baitzen alaba hantxe uztea, arau ala ez arau, alaba ez ziola inork hartuko, eta eramanen zuela handik, 'Hori pentsau baietz'.

Horrela itzuli zen Ana Euskal Herrira, Lapurdiko Zokoko hilerrian bazen ere, Landetatik urrun. Azkenean.

Askotan pentsatu du Pilarrek zein zoriontsu izanen zen Ana Ziburun, eta hilerrira joan zaio ostegunero kontu-kontari, etxekoen berri ematera. Harri latzaren gainean eseri da eta hitz egin dio, esku batek legar zuriak hautatu, besteak hil harri gainean marrazkiak osatu eta desegin dituen bitartean. Dena aipatu dio Anari: nola hasi den Luis Donibane Lohizuneko tailertxo batean mekanikari gisa lanean; nola ari den Amaia euskal dantza ikasten Ziburuko Bixintxo taldean; nola joan den aita aste osorako lanera kamioi handia gidatzen; nola izan diren Amaia eta biak Irunen Tia Angeles bisitatzen; Pantxoa eta Peioren diskoa gordeka nola eraman dioten; eta muga zeharkatzean zelako sustoa hartu duten, guardia zibilek zakuak miatuko zizkiotelakoan.

Osteguneguz ostegun, udaberritik udaberrira, urtea joan urtea etorri, ez du alaba zenarekiko hitzordu bat bera ere huts egin Pilarrek. Hantxe egon da, tenk, lanetik bueltan, eta jubilatuta ondoren berdin, ostegunero, kafesnearen orduan, hil harri jarri eta kontu kontari.

Ziburura joateko parada suertatu zitzaielarik, etxe zahar batean bizitzea egokitu zitzaien berriz ere, Errekalde Baita izenekoa, Mezoseko Jendarmeria bezain zaharra izanagatik, xarma gehiago zuena. Kurioa bai, hasteko. Sartu eta ezkerretara zuen egongelaxoan paretak ziren ikusgarrienak: mahats mulkoz eta dantzariz osaturiko zerrendak lau hormen itzulia egiten zuen. Pilarrek ukitu zuen: ez zen tapizeria, pintura baizik.

'Zer da hau halakua?' pentsatu zuen, eta une berean, emango zion lana eskertu zuen, lanean sartu beharra aurrera egiteko modurik egokiena ez bazen ere, ezagutzen zuen bakarra zelako. Lanean sartu, lanari lotu, lanari ekin, lanean bere pena ito edo bederen isilarazi.

Ondoko hilabetea etxea txukuntzen igaro zuen emakumeak. Tindatu, papera ezarri, gelaz gela astetik astera itxura hobea hartuz joan zen Errekalde Baita.

Jabeak bi ahizpa ziren, Ziburuko garaje baten jabeak. Euskaldunak ziren biak, horrek harremanak errazteko behintzat balio zuen; baina bestalde, euskalduntasunak ez zion inongo abantailarik ekartzen gipuzkoar familiari, bi neskazarrek ez baitzuten sentimenduentzat inongo tokirik. Aferak aferara, eta sosa sosa, ez zuten sekulan xentimorik xahutu alokatzen zuten etxe zaharra konpontzeko edo zaintzeko. Hilabetero alokairua jasotzea ez zuten haatik ahazten, eta horretan ez zuten ez kezkatzerik, Pilarrek ez baitzuen zorrik egingo, aberastasunik ezean duintasuna baitzuen soberan.

Hantxe egokitu zen familia, Ziburun. Amaiak Saint-Michel eskolan lagunak egin zituen berehala, baita egunero bertara joateko bidelaguna bilatu ere, errepideaz bestaldean bizi baitzen bere adin bereko neskatxa, Linda. Honen etxeak portugesak ziren, etorkinak, Arozenatarrak bezalaxe. Etorkin, kanpotar, espainiar, portugaldar... eta euskaldunak Euskal Herrian ere etorkin sentitu behar!

Amaia eta Linda bertako sentitu ziren laster; bigarren belaunaldikoak izaki, gurasoak zituzten kanpotarrak, beraiek ez. Herritarrengandik ez zuten inoiz errespetu faltarik jasan, herriko beste edozein haurren gisara hartuak izan ziren beti, portugesek eta espainolek fama ona baitzuten, langileak eta umilak zireneko fama, hain zuzen.

Horretan zetzan gakoa: lan egin eta isildu. Ematen zaizuna onartzeaz gain, eskertu eta gehiagorik ez eskatu.

Horixe bera zen etxean ikasi zutena txikitatik: inoiz ezer ez eskatu, eta ematen zaizuna eskertu.

Lusek mekanika ikasten segitu zuen, eta zaletasun berria deskubritu zuen: argazkilaritza. Denbora ongi betetzen zuen, garajeen lanean asteen zehar, eta asteburuetan motorra hartu eta argazki egitera ezker eta eskuin ibiliz. Gelatxo muntatu zuen ere, argazkiak errebelatzeko materialaz hornitua, bonbilla gorria atean jarri zuen, inork sartzetik noiz haizu zuen eta noiz ez ezin argikiago adierazteko.

Laster bilakatu zen etxeko paparazzi ofiziala. Hantxe zebilen, edozein momentuan klik eta klik, suertatzen zen edozer hartzen. Ama nazkatu samar zeukan, prestatu gabe harrapatzen baitzuen, etxeko lanak egiten ari zela erratza eskutan mantala erantzeko astirik ere ematen ez ziola. Amaiak ere bakerik ez zuen, bainugelaraino sartzan baitzitzaion neba, hortzak garbitzen ari zela edo egongelako besaulkian telebistari begira berdin, eta behin batean hatza sudur zuloetan miaka zebilelako unea betiko finkatu zuen, baita formatu handian garatu, arrega gehiago nardatzeko.

Hamar urte igaro zituen familiak Ziburuko Errekalde Baita etxean. Hamar urte horietan bakoitza bizi berrian kokatu zen, aitzina egin zuen, eta inguramenari ongi egokitu.

Pilarrek lana laster atzeman zuen Zokoko P.E.P zentroan, sukaldean eta garbiketan. Horrez gain, elizako koruan hasi zen asteen behin kantuan, plazerari tartetxo bat utzirik.

Jose-Manuelek astea joan-etorriak egiten ematen zuen, kamioiaz botila hutsak garraiatzen Bordele aldera. Ardo onak ezagutzen hasi zen, eta nola eskuratu laster asmatu zuen: frantsesak Ricard zaleak izaki, trukaketa sistema martxan jarri zuen. Ricard-a arnoaren truke.

Autoaren motorrean gordelekua antolatu ondoren, igande goizetan Ibardinera itzulia egiten zuen gizonak, kontrabandozko botilaz kotxea kargatu eta altxorrekarekin abiatzen zen astelehen goizetan, edari preziatua Bordele inguruko mahastietan arno kutxen truke uztera.

Horrela ezagutu zituzten Errekalde Baitan Monbazillac, Saint-Emilion, Pauillac deituriko arnoak, eskailera

pean antolaturiko sotoan gordetzen ziren ontasunak, egun berezietan ireki eta dastatzeko.

Jose-Manuelek frantsesa ikasi zuen nahi ala ez, eta ongi moldatzen zen. Etxerakoan anekdota irrigarriak ekartzen zituen beti, frantses horiek benetan arraroak zirela azpimarratuz.

Kamioilariak bazkaldu ohi duten routier deituriko ostatueta gelditurik, hasiera batean, bazkalondoren abiatzerakoan au revoir ongi ahoskatzen saiatu arren, ez omen zion inork erantzuten. Hortaz, behin bururatu zitzaion ‘porrua!’ oihukatzea, eta orduan denek aho batez au revoir! erantzun omen zioten! Halako kontuekin etxekoak alaitzea lortzen zuen beti gizonak. Horrela aipatzen zuen ere frantziar ortografia:

‘Hau dek hau letrak alperrik galtzea! Pentsa: boku esan eta beaucoup idazten dute prantses hauek! Letra erdiak sobran! Behar gabeko xahutzea hoixe!’

Ana zendu eta hamar urtera, Jose-Manuel eritu eta xangreak sei hilabetez eraman zuen. Andreak beste dolu bati aurre egin behar izan zion, eta seme-alabentzat kolpe dorpea izan zen aitaren heriotza.

Azken eguna arte, Jose-Manuelek etxekoak babestu nahi izan zituen. Umorea ez zuen inoiz galdu, ezta une mingarrietan ere. Ospitalean zegoela, ebakuntzaren ondotik, etxera noiz itzuliko zen galdetzen zien erizain eta medikuei, eta hauek: ‘bientôt, bientôt’, erantzuten. Orduan gizonak andrea eta semeari begi-kliska batez: ‘Bota, bota haizea, viento, viento!’, esaten zien.

Azken hantsa ematerakoan, ‘Hau da hau gauza ederra!’ erran zuen, eta hitzok Pilarrentzat kontsolagarriak izan ziren, gizonari heriotzaren atarian mundu zoragarri bat ireki zitzaiolakoan.

Senarrarentzat elizkizuna onartu zuen Pilarrek, baldin eta Mattin apezak kudeatzen bazituen ehorzketak. Mattin izan zen Pilar elizarekin adiskidetzera lortu zuen bakarra, izan ere euskaldun eta abertzale izateaz gain, gizon irekia baitzen bikarioa. Jende xumearekin harreman hurbila zuen, eta edozein laguntzeko prest egoten zen beti, orduko erretore hantuste burges zalea ez bezala.

Hileta elizkizunetik landa, hilotza Ziburuko hilerrian ehortzia izan zen, alabaren ondoan betiereko pausarako.

Eta geroztik, lehen ere bezala, ostegun guztiz segitzen du Pilarrek kanposantuko hitzordua betetzen, betiko tenorean.

Mila

Itsasgora Zokoko hondartzan. Udatiarrak hasi dira lekua husten. Eguzki krema usaina goraino heldu zaie bafadaka bi emazteei. Laster hartuko du berriz Zokoko hondartzak itxura lasaiagoa: jendearen zurrumurruari olatuen joan-etorriak dio gaina hartuko, eta eguzkia, emeki-emeki, ortzimugaperatzen hasiko da.

Milak burua amaren sorbaldaren gainean pausatu du, nahiz eta horretarako aulkiaren kanpoalderantz lerratu behar izan duen. Haur txikiaren postura hartu du, berrogeita hamar urte pasatan ohikoa ez den

postura, batik bat, baina bost axola ohidura eta usadioek diotena: ama atzeman berri izanak eskubide guztiak ematen dizkio. Nork erranen zuen Sevillan hazitako neska zintzoari bat-batean bizitza hainbesteraino aldatuko zitzaiola urte betean! Tsunamia, bai, tsunamia izan zen burutik beheiti erori zaiona 2012ko urte honetan.

Aurrez aurre uhainetan jostari dabiltzan kaioei begira geratu da istant batez. Amets gaiztoa amets eder nola bilakatu den ongi gogoratzen du, noski. Lehen-lehenik amets bitxi bezain kezagarri haiek ditu oroitu: neska horail mehar hura nola etortzen zitzaion zegoen edozein lekura. Eta aldi oro gauza bera izaten zen:

‘Kandi, Kandi!’ xuxurlatzen zion belarrira, ‘hire ahizpa naun; Ana, hire ahizpa. Hi ez haiz hemengoa, hi gurea haiz, Pilarren alaba. Gezurra sinetsarazi zitenan urtetan, Kandi. Gezurra. Hi ez haiz Mila. Begira itzan hire ustezko gurasoak, begira hire burua ispiluan, eta ulertuko dun ez dunala horiekiko ezer.’

Eta hitzok entzutearekin, izugarrizko maitasun besarkada sentitzen zuen. Eta izerditan esnatzen zen, hasperenka eta goragale.

Hamabost urte zuen ametsa lehendabiziko aldiz egin zuenean. 1970eko udan kokatzen zuen. Gerora jakinen zuen Anaren heriotza garai hartan bertan gertatu zela. Orduz geroztik, etengabe errepikatu zen ametsa, aldaera batzuekin izanik ere, baina mezua haatik beti bera izaki: hala nola, ez zela bere gurasoen alaba, beste batzuen baizik; eta ez zuela Mila izena, Kandi baizik. Beste bitxikeriarik ere bazuen amets delako hark, hizkuntzarena hain zuzen.

Ana izeneko neska horaila ez zitzaion gaztelaniaz zuzentzen amets haietan, beste hizkuntza arraro batean baizik. Eta harriztekoa zen zein errazki ulertzen zion dena, hainbestetaraino non elkarrizketak ukaitera ere iritsi baitziren bi neskak behin baino gehiagotan hizkuntza misteriosu hartan. Abesti bat ere gogoz ikasi zuen Milak ametsetatik:

‘Itsasoa laino dago Baionako barraraino, nik zu zaitut maiteago, arraitxuak ura baino’,

eta etxean bakarrik suertatzen zenean, ardura kantatzen zuen, melodiak eta hitzek bere baitan sortzen zuten emozioa ez baitzuen beste inongo egoeratan bizi. Mi canción mágica deitzen zuen berekiko.

Amari inoiz ez zion ametsena aipatu Milak. Batetik, ez ziolako kezkarik sortu nahi, baina bestetik beldur ere bazelako, egia zerbaiten mezulari ote ziren amets haiek... Urte luzeetan beretzat atxiki zuen ametsen sekretua. Nolanahika ere, susmoa aspalditik zeraman berarekin. Susmoa baino gehiago, sentipen berezia, zerbaiten eskasia, hutsune arraroa hortxe, barne-barnean, edozein momentutan pizten zitzaion sabeleko urraduratxoa, ximiko antzeko zerbait. Pentsatzen jarrita, beste familiak ikustean sortzen zitzaion delako inpresioa. Besteen familiek koadro orekatua osatzen zuten, kideen arteko osagarritasuna perfektua zeritzon Milari, begi bistakoa, bere etxeko argazkian ez bezala. Soza Barrancotarren margoa akastuna zela ezin ukatu. Hirukotean Milak bere burua ez zuen ongi kokatzea lortzen, baina, zergatik, ez zezakeen asma. Bizkitartean, harra sagarrean bezala, zalantza habia egiten hasia zen, zalantza isil bezain adierazgarria, gurasoen muin guztiengatik ere.

Eskolako ikasturteko lehendabiziko egunean izan ohi zuen neskak ezongia bizitzeko aukera errepikakorra,

irudimen gutiko irakasleek urterik urte idazlan berbera eskatzen ziotelarik; hau da, etxekoen aurkezpena egiteko agintzen; alaba bakarra zenarena idazteak zitzada minbera eragiten zion aldi oro, iruzurkerian ari izango balitz bezala, etxe handi haren armarren usurpatzaile maltzurra irudi. Argazki albumean ikusi, ikusten zuen alta, amaren besoetan nini burusoil hura, aitamen bi begirada amultsuek inguratzen zutela, baina hala eta guztiz, ez zuen lortzen arrotasun sentimendua bazterrera uzterik.

Handitu zen Mila, ikasketak burutu zituen irakasle-eskolan, irakasle postua ere berehala lortu Sevillan bertan. Gurasoak harro zeuden alabaz. Beti goraipatu izan zituzten eman zituen urrats guztiak, txikitatik, eta loriatzen ziren alaba ideala atera zitzaizela eta. Arrazoirik ez zitzaien, ez, horretan falta, Mila benetan neska xarmanta baitzen arlo guztietan. Encantadora zen gehien entzun ohi zuen kualifikatzailea. Eta halakoxea zen, bai, zoragarria. Edozein gurasok amets zezakeen alabarik onena. Denak zituen xarma pean hartuta, gurasoak nola ez, auzoko, irakasle, lagun zein ezagun guztiak.

Zoriontsu izateko dena eta gehiago zuen neskak. Gazte liraina zen eta, adiskideek esaten zioten bezala, trapuz jantzita ere dotore zegoen horietakoa zen. Umore onekoa, bestalde, jendekina eta eskuzabala. Arrakasta bazuen nahi bezainbeste. Mutil gazteak ere ondotik zeuzkan, baina horrekin kontuz ibili beharra zuen, aitak hurbiletik zaintzen baitzuen bere perla, eta ez zuen inor altxorrari inguratzen aise uzten.

Teniente koronel Antonio Soza Barranco Guardia Zibileko buruetako bat zen frankismoaren urte gogorretan, eta harekin txantxa guti. Etxekoekin goxoa bezain krudela izan zitekeen gustuko ez zituenekin, horretan duda izpirik ez, eta etxekoekin ere ez zen edozer onartzeko prest, alaba kuttunarengandik izanik ere.

Milak ongi hartu zuen ikasgaia 1970ean, Burgosko epaiketak hasi zirenean. Hamabost urteko neskak, institutuan komentatzen zenez gero, etxera ekarri zuen gaia, hau da, hamasei euskal presok heriotza zigorra arriskatzen zutela, eta bazkalorduan halaxe askatu zuen:

‘Estatu atzeratuaren marka, arazoak heriotza zigorraz konpontzen dituen!’

Teniente koronelari paella sardexkatik erori zitzaion. Aurpegiko gihar guztiak banan bana tinkatu zituen, eta gorrotoak inoiz bisaiarik hartu badu, huraxe izan behar. Mila harrিতuta geratu zitzaion begira, hura ez baitzen berak ezagutzen zuen aita. Ama, berehala, zetorren ekaitza aurreikusita, senarrari aitzinatu zitzaion.

‘Mila maitea, halakorik ez ezazu esan, Jaungoikoaren izenean! Batzuetan, estatuak neurri zorrotzak hartzera behartuta egoten dira, be-har-tu-ta, ez plazerez, baina. Gaizkile horiek, terrorista hiltzaile horiek eskuak gure odolean busti baitituzte, heriotza ere ez tiegi da merezi dutenaren ondoan. Kontuan har ezazu eraildakoen familiakoen sufrimendua. Nork itzuliko die horiei aita, senarra, anaia, semea? E, nork? Zenbat bizitza kendu dizkigute euskaldun nazkagarri horiek? Zenbat?’

‘Bai, noski, ama. Baina guk erailtzen baditugu, haien pareko garela ez al dugu bada frogatzen? Ez al genuke barkatu behar, elizak agintzen duen bezala?’

‘Sangre! Puta sangre! Odolean daramate!’

Mahaitik altxatu zen gizonak eroa zirudien. Andreari ari zitzaion oihuka:

‘Esan nizun nik, Dios santo! Odolean daramate! Madarikatua ni!’

Mekauenka alde egin zuen sukaldetik.

‘Denak garbitu behar ziren, denak! Denak akabatuko ditugu! Madarikatua ni!’

‘Tranquila cariño!’, andreak senarra segitu zuen bulegoraino.

Atea gaketzen entzun zuen Milak eta, ondotik, ezer ez. Ahotsak gelan preso zeuden, ate kapitonatuak bere zaindari lana ongi eginik. Barne hartan esandakoak ez ziren inoiz handik atera, heriotza zigorra erori zitzaaien hitz haiei ere, Burgosko presoek bezalaxe. Odol gustua larregi zuketen, antza.

Egun hartatik goiti, Milak bestela begiratu zion aitari. Honek ez zuen gertakaria berriz aipatu, eta deus gertatu ez balitz bezala portatzen saiatzen zen, baina alabak zuen aitaren irudia pitzatu zen eta bien arteko harremanean ere distantzia bat instalatu zen egunetik egunera, oharkabea, arraildurak horma sendoan barna bide egiten duen gisara, isil-isila.

‘Putxa sangre!’ oihua zen Milak aitaren begirada gurutzatzen zuen bakoitzean entzuten zuena. Zainetan zebilkion odola ez al zen bada aitarena? Eta berehala, ametsetako Anaren hitzen oihartzuna heldu zitzaion: ‘Ez haiz Mila. Gurea haiz. Kandi.’

Eta probokazio gisa, aitaren begi hotzetan bereak plantatzen zituen, Itsasoa laino dago kantuaeren doinua lelotuz.

Burgosko auziak mundu zabalean eragin protestaren ondorioz, euskal presoak ez ziren heriotzara kondenatuak izan, bizi bitarteko presondegira baizik.

Horrek etxeko giroa, nonbait, baretu zuen, aita-alaben arteko mesfidantza desagerrarazi ez zuen arren. Su-etentzat hartu zuten biek berria, baina armak ez zituzten horrenbestez utzi. Milaren baitan gero eta argiago gauzatu zen helburu berria: etxe hartatik lehenbailehen joatea, bere buruaren jabe izateko gisan. Gakoa esku tartean zeukan, ikasteari lotu eta bitzta bere modura eramateko baldintzak bete bezain laster, aire!

Anaren koaderno

Su gorrizko eguzki bola itsas gainean pausatu da, eta borobila oso-osorik ageri den unea gozatzen ari dira ama-alabak aulki gainean. Osotasuna lortzea zein den gauza zaila bururatu zaio Pilarri. Uneak, horrelako momentu laburrak suertatzen direnean dastatzen ikasia da, halabeharrez. Hortxe, Ziburuko hilerriko aulkian jarrita, ustez betiko galdua zuen alabaren buruaren pisua sorbaldan sentitzea, hori da momentu perfektu horietako bat, une borobila, betea, noizean behin ezbehar guztiak ahantzarazten dituen minutu liluragarria.

Lilurazkoa izan zen, izan ere, Anaren heriotzaren ostean, Mezoseko Jendarmeria husten ari ziren egunean gertatutakoa. Kartoizko kaxak betetzen hasi zela, Amaia etorri zitzaion, eskutan koaderno gorri bat zekarrela.

‘Ana, Ana’, zioen txikiak, aurkikuntza amari eskainiz.

Pilarrek bildu beharreko platerak mahai gainean utzi zituen berehala eta kaiera hartu zion alabari. Amets-bidaiak izenburua irakurri zuen eta kadiran eseri zen. Anak azken hilabeteetan idatziriko orrialdeak itzuli zituen lehenik, banan-banan, eta eskua idatziaren gainetik pasatu zuen behin eta berriro, alabaren izana fereka horretan berreskuratuko balu bezala. Laurogeita lau ziren belztutako orriak.

Bertan kontatzen zituen amets-bidaietan bizitakoa, baita eguneroko sentipenak ere. Pilarrek dena irakurri zuen kolpe batez.

Nola ez zen bada Anak bere baitan zeraman ondoezaz ohartu? Hobendun sentitu zen, baina berantegi zen. Ez zen hortaz ezer egiterik. Edo bai. Egin zezakeen gauza bakarra Ana Euskal Herrira eramatea zen. Besterik ez bazen, hori bederen. Horretan behintzat asmatu zuela ohartzeak kontsolatu zuen. Eta harritu zen lerro bitxi haiek irakurtzeak eragin zioten lasaitasunaz. Negarrez ari zen, noski, malko beroak mateletan behera isurtzen zituen, baina, aldi berean, Anaren ahotsa entzuten zuen hitz haiek irakurri ahala, Anaren ahots goxoa, eztiki belarrira mintzatu izan balio bezalako ahots lastana, sendagarria, kontsolagarria. Momentu borobila.

Kandi. Kandi izendatu zuen galduriko alaba Anak. Pilarrek oroitzen zuenean Aingeru deitzen zuen, bere aingerutxoa, abenduko aingeru samina. Anaren lerroak irakurtzean, betidanik isilpean gorderik zeraman sentimena azaleratu zitzaion, idatzirik ikusteak egiaztatu izango balu bezala. Ez baitzuen inoiz heriotza hura onartu, funtsean. Onartuarena egin behar izan zuen, zer egin bestela? Mediku eta serora jantzi haien hitza zalantzan jartzeko nor zen bada Mendaroko Pilar? Sortu zenean sano zegoen ninia, bizirik, eta handik ordu betera, hil zela esan ziotenean, azalpen teknikoak onartu behar izan zituen, nola ez: gorpuaz haiek arduratuko zirela; eta gertatu ohi zela zoritxarrez; eta beste... Ongi inguratu zuten, kontsolatu, serora bihoztun haiek, elkarrekin otoitz egin zuten, Jainkoak ninia berekin har zezan, eta horretan bukatu zen dena.

Eta Anak zioen bezala bizirik balego? Pilarrek ideia hura gogoan hartu bezain laster baztertu zuen, ez baitzuen momentuan horri aurre egiteko indarrik aski.

Kaier gorria sukaldeko mahai gainean pausatu eta kartoizko kaxak betetzeari ekin zion.

Mila eta Carla

‘Itsasoa laino dago, Baionako barraraino, nik zu zaitut maiteago arraitxuak ura baino’, Mila kantatzen hasi da, amaren eskua berean harturik. Pilarrek bere ahots polita gehitu du, bigarren bozean, apalago, doinua erliebe berri batez aberastuz.

‘Mi canción mágica’, dio Milak bukaeran.

Magikoa izan zen, halaber, azken urteetako gertakizunen uztarketa. Berrogeita hamar urte pasatan, bizitzak eskaini ziezaiokeen onena hartutzat zeukan Milak. Lanean gustura ari zen, irakaskuntzan gozatzen baitzuen, batez ere zailtasun bereziak zituzten ikasleekiko harremanean. Askok eman zioten haur haiek,

asko irakatsi, eta orain helduak diren ikasle ohiak gurutzatzen dituenen, oparizat hartzen du egiten dioten harrera baikorra.

Etxeoengandik ez zuen ez araberako jarrera baikorrik beti jaso. Ikasketak bururatu eta autonomia hartzen hasi zenetik, gauzak okertzera buruz joan ziren, gurasoekiko harremana ahulduz joan zen urtetik urtera, aitarekikoa behinik behin.

Mila eta bien arteko elkarrizketa agurtze formulatara mugatzen zen, eta gizonak lotura eteteko aukera ez zuen huts egin, suertatu zelarik.

Milak hogeita sei urte zuen gertatu zenean, ordura arte isilpean mantentzea erabaki zuena, agertzera eman nahi izan zuen uda bero hartan. Bi urte zeramatzan maiteminduta eta Carlarekin bizitzeko erabakia hartu bezain laster, gurasoei jakinarazi nahi izan zien. Gordinki esan zien, itzulingururik gabe askatu zuen esaldia:

‘Neska bat maite dut eta harekin bizitzera noa.’

Eta espero zuen bezala, Teniente koronel Antonio Soza Barranco zuritu zen, matela hezurra tinkatu zuen, eta behin betiko sententzia eman zuen:

‘Etxe honetan halakorik ez da inoiz izan, ez eta izango ere. Perbertsioan bizitza erabaki baduzu, guk irakatsi dizkizugun balore guztien kontra joatea aukeratzen baduzu, lizunkeria nazkagarri horiek ez dituzu guregana ekarriko. Hauta duzu: edo bide zuzenera bueltatzen zara, oraindik garaiz zabilta eta, edo horko ate hori pasatuz gero, ez zara gehiago gure alaba.’

Mila amari buruz itzuli zen. Emakumeak aurpegia eskuez ezkutatu zuen, lotsaren lotsaz, eta logelara ihes egin zuen.

Milak maleta bat bete zuen eta etxe hura utzi zuen, ustez betiko. Minduta zegoen, noski, gurasoen ez ulertzeagatik, baina lasaialdia handiagoa izan zen mina baino. Burdinazko ate erraldoia atzean utzi zuenean, Caudilloaren erretratu erraldoiari azken begiratu emanik, aske sentitu zen, eta Carlaren besoetan isuri zituen malkoak gazi bezain gozoak izan ziren.

Carlarekin hamalau urte biziko zituen, hamalau urte eder, pasio eta errespetuz beteriko urteak. Haien arteko harremana Carlak zuen eten, ez maitasun faltagatik, ez, hasieran bezain maiteminduta baitzegoen bukaeran ere, baina Milak zuen haur beharra bien artean leku gehiegi hartzen ari zela ohartu zenean, ezin izan zuen jasan; Carlak argi baitzuen, izan ere, ama ez zuela izan nahi, inondik ere. Amatasuna ez zen beretzat egina, besterik ez.

Milak, haatik, gero eta biziago sentitzen zuen erraietatik zetorkion haur beharra. Ama izan nahi zuen. Ez baitezpada biologikoki, ar baten semena bere barrenean edukitzearen ideia ez baitzitzaion atsegin batere, baina amatu gabeko bizitzari ez zion zentzurik hartzen. Carlaren jarrera onartzen zuen, nola ez, zeharo errespetagarritzat jotzen zuen, eta urtetan saiatu zen bere burua konbentzitzen, bizi zuten amodioa aski zuela eta zoriontsu zen, egia, baina eskasia hor zegoen, gero eta handiago, eta Carla ezin zen erdizkako maitasun batekin konformatu.

Horrela bereizi ziren bi maitaleak, oraindik elkar maitatuz.

Berrogei urterekin, ongi pentsatu ondoren, Milak adopzioa aterabide egokitzat hartu zuen eta txostena onartu eta hilabete gutira deitu zuten Ukrainara alabaren bila joateko esanez. Etorkizun hobea eskainiko ote zion alabari Espainian? Gizonezko irudirik gabeko heziketa ez zion inposatu nahi, baina jakin bazekien aitonarik ez ziola aurkeztuko, harreman toxikoa baino hobe baitzen harremanik ez ukaitea. Hamaika itzuli eman zion kontuari erabaki aitzin, ez baitzen nolanhiko deliberoa haur baten ekartzearena, bere sustraiak moztea, ingurumen berria inposatzea, hori dena bera bezalako emakumeen eskasiak osatzeko.

Baina, orenen buru, haur desioa izan zen azkarrena.

Argazia igorri ziotelarik, txokea bizi izan zuen Milak, aurpegia ikusi aurretik haurraren izena irakurri baitzuen: Anna.

Anna. Hiru urteko neskatila horaila zen Anna. Eslaviar itxura zuen arras, eta ametsetako bisitaria gogorarazten zion Milari. Keinua igortzen ziola pentsatu zuen, eta erabakia hartzen lagundu zuen ideia hark.

Kievetik 300 kilometrora dagoen Tcherechenkiko umezurztegira iritsi zenean, argazkiko alabatxoa berehala ezagutu zuen. Txikia hurbildu zitzaion eta inongo zalantzarik gabe, bi beso argal luzatu zizkion. Elkarren adopzioa bat-batekoa izan zen eta haurtxoa besoetan hartu orduko, Milak osatua zela sentitu zuen, haurraren begi urdin gardenak amaren begi berdeetan murgildu ziren, eskutxoak bere habia bilatu zuen esku xamurrean, eta betidanik zain eduki zuen txokoa eskutxora neurriratu zitzaion, naturalki.

Luis

Silueta altu bat hurbildu da Zokoko hilerri aitzineko aulkira. Luisek bisera kendu du Milari bi musu emateko. Txikitako begirada bizia atxiki du urtetan zehar, eta mutil koskor bihurria kazetari ezaguna bilakatu da. Autodidakta. Hitz hori da hobekien definitzen duena. Ikasketak gazte utzi bai, baina beti ikasten jardun duen pertsona da Luis.

Amaren ondoan eseri da. Itsasoari begira jarri da bera ere. Itsasoaren deia Ziburura iritsi orduko entzun zuen; garai hartan, Dakarretik zetozen afrikar arrantzaleekin pasatzen zuen denbora libre guztia, haiekin joaten zen atunetara, tripak botatzen baina itsasoak eskaintzen duen askatasuna gozatzen. Askatasun egarriak dio bizitza gidatu.

Itsasoaren maitasunetik argazkilaritzara, argazkilaritzatik kazetaritzara. Irratigintzan ere ari izana da; 1981etik aitzina sortu ziren irrati libre horietako batean, esatari gisa, itsasoko kontuak aipagai zituela. Librea izan behar zuen irratiak Luisek nagusi baten aginduak jasan ahal izateko, mutiko bihurriak bizirik baitirau gizon helduaren baitan ere. Arauak edota legeak onargarriak iruditzen bazaizkio, betetzen ditu, noski; baina, bestela, uko egiten die, ondorio guztiekin. Horrela eraiki du bere bizitza, bere gisan, inoren menpe egon gabe.

Arrantza ontziak kaira buruz doaz. Luisek Nahikari ontzia ezagutu du. Azken mohikanoetako bat. Gaur

egun arrantzatik modu duinean bizitzea ez baita gauza erraza. Zakar biltzen aritu behar izaten dute arrantzale zenbaitek udan, diru zerbait irabazi ahal izateko. Negargarria. Pelagikoek hondo guztiak xehatu ondoren, bertako arrantzaleak zikinketari bihurtu!

Amari eta arrebari so egoten da une batez, eta gogora heldu zaizkio azken hilabeteetako pasadizoak. EFE agentziako Pepe aspaldiko lagunari esker hasi zen dena; zurrumurruaren berri hark eman baitzion Luisi, Espainiar estatua inarrosiko zuen eskandalu ikaragarria zettorrela: Franko garaian hasi eta 1980 arte, bederen, iraun zuen haur jaio berrien lapurretaren afera.

Lekukotasunak hasi ziren plazaratzen, bakar batzuk hastapenean, hamarnaka ondoren, ehunka laster... Hastialkeriaren lehergailuak eztanda egin arte.

Luisek interes bereziarekin segitzen zuen gaia. Anak idatziriko koadernotxoak berak zeukan gordeta, eta behin baino gehiagotan irakurri zituen arrebaren bitxikeriei bestela begiratzen zien orain. Peperekin komentatu zuen behin. Baina nola frogatu, nola ziurtatu, nondik hasi? Orratza lasto metan bilatzea bezain zaila. Pilarri ADN froga egitea baitezpadakoa zen, nonbait alabak berak bilatzen badu, parekatu ahal izateko.

Luis ondoko hilabeteetan errealitatean edota fikzio betean ote zebilen dudatan zegoen.

Pepe, aldiz, segurtamen osoz mintzo zitzaion, kontua ez zela horretan utzi behar, inola ere; ahalegin guztiak egin behar zirela egiaren jalgiazteko, gobernuak ezarri nahi zuen estalki irazgaitza idoki behar zela; eta laguna horrela bildu zuen. Datu banku erraldoia osatu zen fite; Pilarren geneak taldea handitzera joan ziren. Botila itsasora bota zuten, eta mezua jasoko zuenik izango zenez, ezin jakin.

Amaia

Auto bat geratu da Zokoko hondartza ondoan. Gidaria jaitsi da, berrogei bat urteko emazte polita. Gibekeko atea zabaldu du, eta eskua eman dion neskatalari eguzkiaren azken izpiek burua urreztatu diote. Maldan gora doaz biak, hilerriko sarreraraino eta urrats bakoitzean, neskatxa horailari soineko loreduna saltari dihoakio, gorputz finaren arintasuna azpimarratzeko bezala.

‘Amama! Me he bañado con Amaia!’

Aulkira joan da zuzenean; osabak lumatxoak altxatu du, Pilarren altzotan uzteko, eta Mila xutitu da Amaia besarkatzera.

‘Ai, Amaia, no me lo creo!’

Egia esan, sinestezina izan da denentzat elkar aurkitzea. Film batean ikusi izan balute, gehiegizkoa irudituko zitzaiekeen.

Amaia ez da aspertzen Milari begira. Ispilu miresgarri batean begiratzearen efektua egiten dio ikusten duen bakoitzean. Hain guti ezagutu duen ahizparen dolua egitea ez zaio erraza izan. Ana gogora ekartzea zaila zaio, irudia lausotua datorkio, zatika, sakailatua, eta Milari esker argazkia osatuago agertzen zaio.

Itxuraz gain, Anaren irriaren hotsa irudika dezake Mila barre egiten entzuten duenean. Bitxia da sentsazioa, zinez, ahizpa bat galdu eta beste bat irabazi izanak sortzen dion emozioen gainbehera.

Hilerrira ez zen askotan bisitan etortzen, ez; aita zendu zenetik, guttiago. Tristura baizik ez zion eragiten leku hark. Ama laguntzeagatik urtean behin bertaratzen zen, hobia garbitu, lore batzuez apaindu, baina ez krisantemoez, hori ez. Urreliliak hitsetan hitsenak baitziren Amaiaren ustez. Krabelinak, margaritak, loretxo alaiak zituen aukeratzen. Eta arrosa zuri bat gehitu ohi zuen Amaiak Kandirentzat, ahizpa galduaren omenez. 2011ko azaroan, arrosatxoa hilarriaren gainean ezarri zionean Kandiri, ez zekien azkenekoa izanen zenik, ez eta zendutzat zeukan ahizpa hilen artetik itzuliko zitzaionik ere!

Ez zituen aintzat hartu Anaren ametsetako mezuak, nola pentsatuko zuen iragarle zirela, Amaia sineskerietatik hain zen urrun, non ezinezkoa baitzitzaion lotura egitea. Gertatu zen arte.

Orduan bai. Amets errepikakorra ulertu zuen, orduan. Ana azaltzen zitzaion Ziburuko plazaren gibelaldean dagoen iturri zaharrean, beste neska bat eskutik zeramala. Eta iturri zaharretik ura hartu eta ematen zion, 'Hau Kandirentzat!', erranez. Kandi izendatuak ura edan eta 'Gracias Ana', erantzuten zion. Ondoren, bi neskak harrizko eskaileran eseri eta Amaiari begira-begira egoten zitzaizkion, irribarreka, eta besoak Amaiaren alderantz luzatuz, 'Laster arte, Amaia!', zioen Anak 'Hasta pronto, Amaia!' Kandik.

Eta, halako batean, hegan abiatzen ziren biak eskutik helduta, kale hertsiko etxe garaiek ezkututzen zituzten arte.

Ametsa ametsa baizik ez zela sinetsi zuen Amaiak hilabeteetan, Mila haien artera iritsi arte, ikusi orduko ezagutu baitzuen ametseko Kandi.

'No me lo creo, Amaia', errepikatu zuen Milak.

Epilogoa

Miraria izan zen, hori, miraria. Azkenean, Milagros izenak zorte ona ekarri zion! Mila izenak eta Facebookek ere, aitortu behar da...

Lusek Facebooken informazioa jarri zuen, kontaktu guztiei zabaldu, Peppek bere aldetik gauza bera egiten zuen bitartean, eta hara nola iritsi zen mezua batetik bestera, Ziburutik Sevillara, Carlarenganaino.

Carla. Carla izan zen puzzle erraldoiaren azken pieza, gakoa.

Luisen mezua ikusi zuenean, argazkiek zioten arreta eman: Lusek argazki sorta bidali baitzuen, hiru haurrideen argazkiak, aita-amenak, txikitakoak eta oraingoak ere.

Carlak Amaiaren argazkia ikusi zuenean, Mila ikusten zuela uste izan zuen. Begirada zabala, aurpegi forma, kokots zulotxo, harrigarria zen! Eta Milaren ametsetako bisitaria, Ana, bikote ohiak hainbeste aldiz deskribatu zion neskaxa meharra, hantxeko hura zirudien bada!

Milarekin harremanetan jarriko zen Carla, lehenbailehen.

'Putá sangre!', Milak ez zuen ahaztu.

Lotura eten zuen aitarekiko, baina amarekiko harremana mantendu zuen. Maiz elkar ikusten zuten, Milaren etxean; Carla ere onartu behar izan zuen emakumeak, alaba ikusi ahal izateko baldintza ezinbestekoa baitzen. Bi emazteak bereizi zirelarik, amari alaba gizonen batekin ezkonduko zelako ametsa berpiztu zitzaion, bai, haurdun ikusiko zuelakoarekin batera, bera amona egingen zuelako itxaropena elikatuz. Herriko gizon pare bat aurkeztu zion bikotetzat hautatuko zituelakoan, baina arrakastarik ez zuen lortu. Milak esperantza haiek guztiak bertan behera utzarazi zizkion laster, haur bat adoptatzeko asmoa azaldu bezain laster. Amona normala izatea ahantzi behar izan bazuen, hala ere amona izanen zeneko kontsolamendua pozik hartu zuen, eta azken urtean, ama-alabek ilusio bera bizi zuten, adopzioa zela eta.

Amatasunaren esperientzia partekatu nahian, Milak hamaika galdera egiten zion amari. Haurtzaroko oroitzapenak gogotik aipatzen zizkion amak: Milaren sabeleko minak, digestio arazoak, zenbat gau igaro zituen nini negartia kulunkatzen; eta une alaiak: Milaren lehen irriñoak, lehen kika, lehen urratsak nola eman zituen amaren eskuetatik aitaren besoetaraino; eta lehendabiziko hitza: haur gehienek ez bezala, zenbat kostatzen zitzaion haurrari mamá erratea, amaren saiakera guztiengatik ere, eta nola bota zion baba harro bat.

Gustura gogoratzen zituen kontutxo haiek oro. Gai batekin ordea ez zen gauza bera. Behin baino gehiagotan galdekatu zuen Milak haurdunaldiaren gertaldiez, ama durduzaraziz. Urduri jartzen zen emakumea, dena ongi igaro zela erranez kapitulua hesten zuen, Milarengan errezeloa sustatuz.

Anna aurkeztu zionean, amona berria lorietan zegoen.

Ez zen, baina, luzarokoa izanen zorioneko garaia, 2012an mundua goitik behera erori zitzaion eta emazteari. Gezurra oinarri duela eraikitakoa, goiz ala berant, egiak baitu suntsituko.

Hala zen gertatu.

Carlarekiko hitzordua ez zuen inoiz ahaztuko Milak. Begiradan irakurri zionak larritasunaren antza zuen. Ordenagailua ireki eta Peperen mezua erakutsi zion zuzenean, inongo zeharkakorik gabe. Mila isilik egon zen. Carlak jarlekua utzi zion. Egongelan entzun zitekeen bakarra teklatuaren gaineko emaztearen hatz finen dantzaren hotsa zen. Argazkiak pasarazten zituen banan-banan, behin eta berriro. Minutu luze batzuen ondotik, Carlari buruz itzuli zen, begiak malkoz beterik. Honek eztiki:

‘Lo sabias, Mila, verdad? Siempre lo supiste.’

Eta besarkatu zuen.

Egia zuen, bai, betidanik zekiena baizik ez zen. Bere ametsetako Anak jakinarazi ziona baizik ez. Lapurtua izan zen eta saldua, edozein objektu bezala. Eta bizitza engainuaren gainean eraiki zuen. Ez zekien zerk zion min gehien egiten: gezurrak ala giro horretan jasotako maitasunak. Zorabioan zebilkion bizitako guztia, ordura arte gidatu zuten baloreak dardarka zeuden, hari baten gainean dantzan zebilen, erori ala ez erori, hortxe, dilindan, bi aldetan amildegia zeukala.

Argitu behar zuen. Zerbait egin behar zuen. Ekintzan sartzeak lagunduko zuen; egin, zerbait egin, edozer hobe egotea baino, zalantzari zenbat eta leku gutxien utzi eta hobeto.

Amarengana joan zen zuzenean. Urtetan ikusi gabeko burdinazko ate erraldoira hurbildu zen. Amak harrituta ireki zion eta harridura laster beldur bilakatu zen, alabak ama saihestu eta pasabide luzean zehar abiatu zenean. Teniente koronelaren bulegoan sartu zen, eta uko egin zion aitari aurre egiteko prestatu zen.

‘ADN froga eginaraziko dut. Baina, lehenik, egia errateko aukera eman nahi dizut. Lapurtutako haur sortu berri horietakoa al naiz?’

Larruzko besaulkian eserita zegoen agureak eskutan zeukan liburua belaun gainetan pausatu zuen. Anderea ondora joan zitzaion, eta negarrez hasi zen:

‘Perdona cariño, perdona, cariño... azalduko dizut... ez da zuk uste duzuna...’

Aitak, haatik, ez zuen barkamenik eskatu. Betaurrekoak kendu eta andereari isiltzeko esan zion bortizki. Ondoren, alabari bota zion:

‘Eskerrak eman beharko zenizkiguke eskaini dizugun guztiagatik. Maitasunean hazi zaitugu, nahi izan duzun guztia ukan duzu. Nire abizena eman dizut, nire etxearen ohorearen jabe egin zaitut. Zer uste duzu bizi izango zenukeela beste horiekin? Pobrezia materiala eta intelektuala, hori da irabaziko zenukeena, atzeratu horiekin handitu izan bazina. Justiziarik ez dago. Holakoek haurrak egiten badakite, edozein animaliak bezala. Eta guk ere bagenuen guraso izateko eskubidea, horiek bezainbeste, horiek baino gehiago! Zuzentasunaren izenean egin genuen egindakoa. Besterik ez. Beste guztia detaileak dira.’

Besterik ez zuen ahoskatu. Liburua belaunen gainetik hartu zuen eta irakurtzen segitu zuen.

‘Put a sangre la tuya, teniente coronel!’

Mila bulegotik sartu bezain laster atera zen. Burdinazko ate erraldoia itxi zuen, aldi hartan betirako.

Ana Zokoko hondartzari begira dago. Kresal usaina gogoko izan du beti eta ez da arnasteaz asetzen. Gustura dago Ana, itsasoari begira. Uhinen aparretan jolasten aritu da une batez, hagon zuri bezain arinean jauzika ibili da, hondar hezean lurrartu arteko txirristan.

Gustuko du ikusten duen guztia: Untxinen itsasoratze goxoa, belaontzi txikien dantza koloretsua, portuko battelekuen kulunka eta euskal etheen lerrokadak koadroari ematen dion nota gorri eta urdinen neurkada alaia.

Harmonia dario inguruko guztiari.

Hala, bakoitza bere tokian dago, bera barne. Hauxe du bere tokia, azkenean berreskuratua. Etxekoak ere ongi daude, bakoitza bere bizitzan bilatuko duenari aurre egiteko jantzia; eta falta dituenen hutsunea gero eta hobeki eramateko gai.

Horretan lagunduko ditu beti Anak, dagoen lekutik, amets-bidaietan zehar haiekin harremana atxikiko baitu, zorionez.

Damurik ez du, dena dago bere tokian, madame Barisen koloretako arkatzen modura!

Gorrotorik ez, beldurrik ez, nazkarik ez. Iganderoko garbantzen gustua bera ere, gogora datorkionean, plazerez dastatzen du.

Eta gehien pozten duen irudia, horko horixe: Pilar eta Kandi (beretzat beti da Kandi!) elkarri besarka, hilerritik badoazela, hasi berri duten kapituluaren segida zoragarria bizitzera!

Ortzadarraren gainean, erle gidarien burrunba lagun, euri berri bihurtuko dela badaki Anak. Amalurrarengana itzuliko da, halako batean, denborak inongo garrantzirik ez duen mundu honetatik.

Noiz, nola eta bestelako galderek zentzurik ez dute gehiago hemen.

Ez hemen, ez hor eta ez han; inon eta nonahi egotea, zoragarria da. Arrotz sentitzerik ez da gehiago.

Zarena zarela gozatzearekin aski da.

Izan, bat izan eta dena izan, osotasunean sartu, bat egin, eta maitatu.